

gaia

genero berdintasuna

abtx'08

oihane perea

andere arriolabengoa

# GEU

2.40 €

2008ko martxoa

182

arte

mugako begiradak

euskal saltsa 08

kirola

javier ruiz de larrinaga

emakumea



# DBH

# Beste hezkuntza-etapa bat hasiko duzu

## Garrantzitsua da ondo aukeratzea



## DIOCESANAS

EDUCACION SECUNDARIA Y FORMACION PROFESIONAL  
BIGARREN HEZKUNTZA ETA LANBIDE HEZIKETA



# DBH

asteazken guztietan 18:00etatik aurrera  
ARRIAGAn eta NIEVES CANOn

# jardunaldi irekiak

Aurre-inskripzioa egiteko  
eparearen aurreko asteetan



## Diocesanasen Hezkuntz-Eskaintza 2008 - 2009 ikasturtea

|                | Derrigorrezko Hezkuntza |                            | Derrigorrezkoaren ondoko Hezkuntza                        |                                                                                                                                                                     |                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                        |
|----------------|-------------------------|----------------------------|-----------------------------------------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
|                | D.B.H.                  | LANBIDE HASTAPENA          | BATXILERGOA                                               | ERDI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK                                                                                                                                | GOI MAILAKO L.H.ko HEZIKETA ZIKLOAK                                                                                                                                                                                                                                                                                                                                    |
| ARRIAGA        | A, B eta D ereduetan    | Soldadurako Langilea       | Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Makineria eta Linea-eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektromekanikoa</li> <li>Ibilgailuen Elektromekanika</li> </ul> | <ul style="list-style-type: none"> <li>Informatika Aplikazioen Garapena <b>E-G</b></li> <li>Informatika Sistemen Administrazioa</li> <li>Produktu Elektronikoen Garapena</li> <li>Automozioa</li> <li>Industri Ekipoen Mantenimendua</li> <li>Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoak (Elektronika)</li> <li>Telekomunikabide eta Informatika Sistemak</li> </ul> |
| MOLINUEVO      |                         | Merkataritza Laguntzailea  | Giza eta Gizarte Zientzen Batxilergoa (A eta D ereduetan) | <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazio Kudeaketa <b>E-G</b></li> <li>Ile-Apainketa</li> <li>Erizaintzaren Laguntza <b>G</b></li> </ul>                | <ul style="list-style-type: none"> <li>Administrazio eta Finantzak <b>E-G</b></li> <li>Garraioaren Kudeaketa</li> <li>Merkataritza Kudeaketa eta Marketina <b>G</b></li> <li>Estetika</li> <li>Gizarte Integrazioa</li> </ul>                                                                                                                                          |
| NIEVES CANO    | A, B eta D ereduetan    | Metal-arotzeriako langilea | Zientziak eta Teknologia Batxilergoa (A eta D ereduetan)  | <ul style="list-style-type: none"> <li>Mekanizazioa <b>E-G</b></li> <li>Informatika Sistemen Ustiapena</li> </ul>                                                   | <ul style="list-style-type: none"> <li>Mekanizazio Bidezko Produktzioa <b>E-G</b></li> <li>Proiektu Mekanikoen Garapena</li> <li>Diagnosi Klinikoan Laborategia</li> </ul>                                                                                                                                                                                             |
| MENDI-ZORROTZA |                         |                            |                                                           | <ul style="list-style-type: none"> <li>Jatetxe eta Tabernako Zerbitzuak</li> <li>Sukaldaritza</li> <li>Pastelgintza eta Okintza</li> </ul>                          | <ul style="list-style-type: none"> <li><b>G</b> Gaeuzkoa</li> <li><b>E-G</b> Egunezkoa eta gaeuzkoa</li> <li><b>E</b> A eta D ereduetan eskaintzen diren Zikloak</li> </ul>                                                                                                                                                                                            |

- L.H.ko Elizbarrutiko Lanaren Ikastetxea
- Lanbide Heziketa osoko Ikastetxea
- HEZKUNTZA SAILAren hitzartutako Ikastetxea
- JUSTIZIA ENPLEGU ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAren babespeko Ikastetxea.
- ARABAKO LHko PARTZUERGOKO kide
- HOBETUZ eta INEMek homologaturiko Ikastetxea
- LANBIDEren Ikastetxe laguntzailea
- HETELera eta Kristau Eskolara elkartutako Ikastetxea
- CAJA VITAL KUTXAren Gizarte Ekintzaren baitakoa

EUSKO JAURLARITZA  
HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE  
ETA KERKETEA SAILA

GOBIERNO VASCO  
DEPARTAMENTO DE EDUCACION,  
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

Arabako Foru Aldundia  
Diputación Foral de Alava



GIZARTE EKINTZA  
Obra Social  
Caja Vital Vital Kutxa

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

martxoaren amaieran - apirilaren hasie-  
ran kobratuko dugu

# sumarioa 182

## abtx'08: oihane perea / andere arriolabengoa ..... 7-9

## javier ruiz de larrinaga ..... 11-13

genero berdintasuna. coral garcia de las heras ..... 15-18

## euskal curriculumuma ..... 22

**mugako begiradak erakusketa** ..... 23-25

**bizikleteroak** ..... 27-29

## euskal saltsa 2008 ..... 31-33

## 2 zutarri berri toloño inguruan ..... 34-35

gaztezulo ..... 20

literatura dosi txikitan ..... 26

geusex ..... 37

agenda, kaletik, idazleen zutabea, euskaltasunean, proposamenak, araba bixotzian, historia zutabea, errezeta eta umorea



7-9



11-13



15-18



27-29

**GEU**

GEU aldizkaria | GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992) | Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua | erredakzioa: Pedro Asua kalea, 2 - 3.a. 01008 Gasteiz | tfnoa. eta faxa: 945 22 21 53 | [geugaste@grn.es](mailto:geugaste@grn.es) | [geu@geugasteiz.com](mailto:geu@geugasteiz.com) | [www.geugasteiz.com](http://www.geugasteiz.com) | zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate | aldizkariko batzordea: david alvez, edurne begiristain, josune velez de mendizabal, edorta sanz eta estitxu breñas | kazetariak: josune velez de mendizabal, edurne begiristain.

aninhua arriaga, naroa cuesta, ane pedruzo eta josune garcia de bikuña | azaleko muntaia: dalvez | argazkiak: edorta sanz | bestelako irudiak-bilaketa: estitxu breñas glz. de zarate, david alvez | testuen zuzenketa-orratzeta-osaketak: estitxu breñas glz. de zarate | itzulpenak: geu aldizkaria eta aztiri | maketa: dalvez | umorea & araba bixotzian: iñigo sarasola | kolaboratzaileak: ale honetan: kike fdz. de pinedo, katixa agirre, mikel ayerbe, erlantz urtasun, ana ramirez de okariz (emaize sexologia zentroa), diocesanasmendiztorrotzak ostarlaritza eskola eta gaztezuolo. | publizitatea: idoia breñas, geu aldizkaria | sustapen harpidetza saila: geu aldizkaria | harpidetza-publizitate laguntzaileak: edurne begiristain | inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati) | lg: VI-582/92 | issn: 1133-0988 | Frankeo Itundua 48/27 zenb. | aldizkari hau paper ekolojikoaz eginga daqo | GEU aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoan erantzukizunik.

Laguntzaileak:



**EROSK**  
FUNDAZIO

# zeregin euskaraz [martxoa]



## GEU ELKARTEA

### GEUREKIN MENDIRA

martxoak 16, igandea  
KURTZEBARRI (1.148 m.)  
[datu+: ZARAIA mendilerroa -  
aretxabaleta]  
goizeko irteera  
irteera: Iovaina plazatik / kotxez  
ordua: 9:00  
arduraduna: txipi (945137258)  
geurekinmendira@gmail.com

### KULTUR ERROTA

martxoak 18, asteartea  
KONTZERTUA:  
MAHASTER RIVER  
blues, funk & soul musika bergaratik  
paral tabernan, 20:30

## MAHASTER RIVER



### IRAKURLE KLUBA

apirilak 3, osteguna  
GEORGE ORWELL, 1984,  
TXALAPARTA 2007

apirilak 24, osteguna  
HARKAITZ ZUBIRI, ZAKUR KALE,  
SUSA 2007  
hikaateneoan, pintore kalea 13,  
20:00  
kontaktua: iban.zaldua@ehu.es

www.geugasteiz.com  
geuelkarte@grn.es /  
945222153

## BISITALDI GIDATUAK EUSKARAZ



montehermoso

### MONTEHERMOSO KULTURUNEA. ERAKUSKETAK

asteazkenero, 19:30 (ez da  
beharrezkoa deitzea)  
taldeak: astearte & ostiraletan, 18:00  
(aurretik erreserba eginez)  
945161830  
HASERREAREN BEGIRADA.  
maiatzaren 4ra arte  
PASAHITZAK 3: feminitatea  
eztabaidatu. maiatzaren 18ra arte  
www.montehermoso.net



### ANDRA MARI KATEDRALA

945255135  
www.catedralvitoria.com

### GASTEIZKO ERDI AROKO HARRESIA

erreserbak: andramari katedralaren  
bisitarien zentroan / 945 255 135  
4 bisita eguneko (iraupena:  
ordubete): 11:15, 12:45; 17:15, 18:45  
2 euro pertsonako

### IRUÑA-VELEIA

945403044 / 652720947  
www.veleia.com

### GATZ HARANA. GESALTZA AÑANA

astelehenetik igandera (jaieguna  
barne), 11:00 / 12:00 / 13:00 / 16:00 /  
17:00 / 18:00  
bisitaldia euskaraz: 10 lagun baino  
gehiagoko taldeak  
helduak: 3 euro / lagundutako  
haurrak: dohainik / taldeak: euro 1  
945351111  
www.vallesalado.net



## ARTIUM

### ERAKUSKETEN BISITALDI GIDATUAK

asteazken, larunbat eta igandero,  
11:30  
doan. plaza mugatuak

### TALDEENTZAKO BISITALDI HITZARTUAK

derrigorrezkoa aldeztu aurretik  
erreserba egitea (73 euro)

### FAMILIENTZAKO BISITA GIDATUAK

larunbat & igandek: 12:30-13:15  
5-11 urte bitarteko umeentzat,  
helduek lagunduta  
doan. plaza mugatuak  
martxoak 1-2: guztiok ote gara  
artista?  
martxoak 8-9: sinboloak artean  
martxoak 15-16: kulturak  
martxoak 22-23: norberaren  
interpretazioa  
martxoak 29-30: teknologia berriak  
arteak

### FAMILIENTZAKO JARDUERAK

martxoak 1: errep(likatu)ARTE!  
17:00-18:30 / 7-10 urte bitarteko  
haurrak, helduren bat lagun  
sarrera: 4 euro (helduak) / euro 1  
(haurrak) [erdi prezioan kide  
elkartuentzat]. toki mugatua

### ARTIUM TXIKIA

(igandek)  
3-5 urte bitarteko haurrentzat,  
helduek lagunduta  
12:15-13:30  
martxoak 2: eguzki biribila  
martxoak 9: erraldoia eta ñimiñoa  
martxoak 16: kolorez kolore  
martxoak 23: bidaia luzea  
martxoak 30: handiro!

### GOIZEAN ARTIUMEN

(igandek)  
5-11 urte bitarteko haurrentzat,  
helduek lagunduta  
12:00-13:30  
martxoak 2: puztuz eta handituz

martxoak 9: plano espazioan  
martxoak 16: egin eta gero...  
desagertu  
martxoak 23: hor ongi pasatzen dut!  
martxoak 30: zer da hori? orbana?

info + erreserbak: 945209010  
www.artium.org

## TXIKIART

### MONTEHERMOSO KULTURUNEA larunbatero, 18:00

4-9 urte bitarteko umeentzat  
tailerrak  
945161830  
www.montehermoso.net

## IPUIN EROTIKOEK 13. LEHIAKETA

epea: apirilak 21  
info+: euskarabila (basauriko  
euskara elkarteak)  
euskarabila@topagunea.com

## TXORIONAK!!

20 urte okupatzen 25 urte  
komunikatzen  
GAZTETXEA eta HALA BEDI  
irratien urteurrenak  
adi egitarauari www.txorionak.org



EUSKO JAURLARITZA




GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA  
Viceconsejería de Política Lingüística


Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundutako egitasmoa  
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



## GAUEKOAK

### IRUDITXOKOA

martxoak 7, 14, 20:00, luis ajuria  
aretoan  
orhum zine klubaren eskutik  
doan  
martxoak 7: obsesio baten  
irudia  
martxoak 14: beckham izan nahi  
nuke



## IRUDITXOKOA

Ciclo de Cine en Euskera Zine Zikloa Euskaraz

|  |                                                                                                |
|--|------------------------------------------------------------------------------------------------|
|  | OTSAILAK 1, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 1 DE FEBRERO, 20.00 h.<br><b>Koruko Mutilak</b>         |
|  | OTSAILAK 8, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 8 DE FEBRERO, 20.00 h.<br><b>Igande Odoltsua</b>        |
|  | OTSAILAK 15, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 15 DE FEBRERO, 20.00 h.<br><b>Obaba</b>                |
|  | OTSAILAK 22, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 22 DE FEBRERO, 20.00 h.<br><b>Aukera Gazteak</b>       |
|  | MARTXOAK 7, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 7 DE MARZO, 20.00 h.<br><b>Obsesio Baten Irudia</b>     |
|  | MARTXOAK 14, OSTIRALA, 20.00<br>VIERNES 14 DE MARZO, 20.00 h.<br><b>Beckham Izan Nahi Nuke</b> |

### LANTEGIAK: EUSKAL DANTZAK

martxoak 7, 14, 28  
5 euro  
izena ematea: aldabe gizarte etxean  
[www.vitoria-gasteiz.org](http://www.vitoria-gasteiz.org)

info+: 945204010 /  
[euskera@gauekoak.com](mailto:euskera@gauekoak.com)  
[www.gauekoak.com](http://www.gauekoak.com)

### LIBURUTEGI BIZIDUNAK

[gonbit-txartelak: dagokion gizarte  
etxeko liburutegian, jarduera hasi  
baino astebete lehenagotik]

martxoak 6  
ariznabarra. 18:00  
hatz margolariak. lantegia  
5-8 urte  
gonbit-txartela behar da



Bibliotecas Animadas  
Liburutegi Bizidunak  
enero-marzo  
2008  
urtarrila-martxo

ACTIVIDADES PARA ADULTOS Y JÓVENES  
ACTIVIDADES INFANTILES  
FIEBRES DE FANTASÍA, GASTA EN EL ZOO Y LA MAQUINARIA EXPANSA  
Descubre otros mundos en las Bibliotecas Animadas.  
¡Haciendo cosas buenas para el mundo!

Info y reservas:  
En los centros cívicos y en las Bibliotecas de la Red  
Regional.

martxoak 14  
ariznabarra. 19:30  
izena duen guztia. joxe mari carrere  
ipuin kontalaria  
helduak  
gonbit-txartela behar da

martxoak 5  
arriaga. 18:00  
esaldi bat, esaldi bi... kontu kontari.  
ipuin kontalaria  
4-6 urte  
gonbit-txartela behar da

martxoak 14 arte  
el pilar  
asmatu zein liburu den. lehiaketa  
helduak  
elebiduna

martxoak 12  
iparralde. 19:30  
ipar euskal herriko abestiak (j. l. laka,  
e. etxamendi, m. erramuzpe)  
helduak  
gonbit-txartela behar da

martxoak 5  
judimendi. 18:00  
etsaiezako pastela. ipuin kontalaria  
6-12 urte  
elebiduna

[www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas](http://www.vitoria-gasteiz.org/bibliotecas)

### ABTX'08

kanporaketak  
martxoak 1, agurainen  
oihane perea, manex agirre, rikardo  
gonzalez de durana, andere  
arriolabengoa, iker agirre eta beñat  
goitia  
[20:00etan hasiko den afari  
goxoaren ondoren. izena emateko:  
675707971 / [araba@bertsozale.com](mailto:araba@bertsozale.com)]  
**finalerdiak**  
martxoak 9, gopegin, 17:00,  
kultur etxean  
martxoak 16, aramaion, 17:00,  
kultur etxean

**finala**  
apirilak 5, gasteizen, 17:00,  
principal antzokian

arabako bertsozale elkarteak.  
945010505 / 675707971 /  
[araba@bertsozale.com](mailto:araba@bertsozale.com)  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)



### GASTEIZ BERTSOZALE

martxoak 6  
**TXAPELDUNEN SAIOA**  
andoni egaña, xabier silbeira, oihane  
perea, aitor mendiluze, xabi paia eta  
amets arzallus  
aurkezlea: pablo pagegi  
20:00, aldabeko antzokian  
[www.bertsozale.com](http://www.bertsozale.com)

### BESTELAKOAK

**MARTXOAK 8**  
adi egitarauari  
martxoaren 1etik 15era

8 de marzo martxoak 8  
Día Internacional de la mujer  
Emakumeen nazioarteko eguna



**ROLLING ROLAK**  
<http://www.argazklik.com>  
<http://www.nontzeberri.com>

### G.E.A., 'GASTEIZKO EUSKARAREN AGENDA' DIGITALA jaso nahi?

bidalguzu zure e-posta [geu@geugasteiz.com](mailto:geu@geugasteiz.com) helbidera eta hilero jasoko  
duzu.  
gasteizko euskarazko ekintzen bilduma da G.E.A.  
ezinbestekoa Gasteizen euskaraz mugitzeko!

### TREBIÑU SAGADOTEGIA EGIN TXOTX!

SAGADOTEGIKO MENUA  
Asteburutan irekita.  
Deitu aurretik  
**Trebiñuko ASKARTZAN**  
945244852 / 657736599



laguntzailea:



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Egunkaria libre!

**EGUNKARIAREN ALDE,  
GEU ELKARTEA&ALDIZKARIAK  
ESKAINTZEN DUTE:**

**DIAPORAMA:**

**MUNDUAN BARRENA BIZIKLETAZ.**

**5 KONTINENTE**

**LORENZO ROJO bidaiari gasteiztarra, mundu bira egin ostean, bueltan  
dugu. LONTXOK, argazkien bitartez bere bizipenetan murgilduko gaitu.  
Ez utzi aukera pasatzen, laster bidean izango baita berriro ere.**

**martxoak 7, ostirala  
20:00etan hikaatenoa**



## **EGUNKARIA LIBRE!**

Otsailaren 20an 5 urte bete dira euskal kulturaren bilgune nagusia zen eta den Euskaldunon Egunkaria itxi zutenetik. Egunkariaren aurkako erasoak eduki propioa zuen, euskararen aldeko eta kultur-gintzaren topagune sozialerako ereduaren aurka zuzenean jotzen zuelako.

Une honetan, itxierak irekitako erasoak finkatzera dator epaiketa, fiskalak akusazioa erretiratuta ere, Espainiako auzitegi nazionalaren aurrera eramango baitituzte Egunkaria auziko auzipetuak.

Eta orain 5 urte egin bezala, orain ere Euskal Herriak erantzun beharra du. Epaiaketaren aurrean perspektiba propioaz aritzea da funtsezkoena. Ez gaitezen mugatu auziperatuekiko elkartasuna adierazi eta epaiaketaren salaketa egitera. Bilaka dezagun epaiketa euskarazko komunikabideen aldeko indar soziala berrindartzeko aukera. Euskarazko komunikabideak Aurrera!

Itxierari egunkari berri eta hobea eginenez eman genion erantzunik sendoena. Epaietari, euskarazko komunikabideen aldeko urrats berri baten bidez egingo diogu aurre. Egunkaria sortu eta birsortu zuen indar euskaltzale zabal horrekin bat eginez. Euskarak komunikabideen alorrean dituen erronka nagusiei begira, aurrera!

**[www.egunkaria.info](http://www.egunkaria.info)**

ANDI  
ABTX'o8

## Araba eta emakumeak bertsolaritzan fin-finak!

Arabako bertsolaritza lokaturik egon da XX. mendera arte. Halere, Arabak iratzartzea erabaki zuenean bere bertsolariek bikain erakutsi zuten euren abilezia, gaur egun ere horretan darraitela. Garapen honen adierazlerik argiena Arabako Bertsolari Txapelketa da, zeinak Prudentzio Deuna bertso sariketa duen aitzindari.



**t. ane pedruzo**  
**a. edorta sanz**

Gaur egun, dagoeneko Arabako 2008ko txapela buru bila ari da eta aipatzekoa da aurtengo edizioaren bertsolari kopuruaren hazkunde nabarmena. Momentu honetan, saikapen fasea eta kanporaketak jada igaro direnean, finalerdiei begira gaude. Hauek, martxoaren 9an Gopegin eta 16an Aramaion jokatuko dira. Finalerako apur bat gehiago itxaron beharko dugu, apirilaren 5a arte hain zuzen ere. Orduan izango da saikatuak sei bertsolaririk onenek euren trebezia erakutsiko dutenean Gasteizko Principal antzokian.

Guztira hamazortzi buru dira airean dagoen txapela eskuratzeko prest agertu direnak. Horien artean, eskarmentu handiko bertsolariak daude, hainbatetan txapeldun izandako Zigor Enbeita eta Asier Otamendi edo iaz Arabako txapeldunorde suertaturiko Iñaki Viñaspre, besteak beste. Hiru izango dira baina, emakumeek bertsolaritzan pikanaka bereganaturiko protagonismoa defendatuko dutenak: Izar Mendiguren, Andere Arrio-labengoa eta Oihane Perea.

Guk Oihane eta Andererekin hitz egiteko aukera izan dugu.

ABTX'08

**finalerdiak**  
martxoak 9, gopegin, 17:00,  
kultur etxean  
martxoak 16, aramaion,  
17:00, kultur etxean

**finala**  
apirilak 5, gasteizen, 17:00,  
principal antzokian

arabako bertsozale elkarte  
945010505 / 675707971 /  
araba@bertsozale.com  
www.bertsozale.com

## OIHANE PEREA

### 30 URTE. GASTEIZ

Oihane ikastola garaian eta kasualitatez murgildu zen bertsolaritzaren munduan Serapio Lopezek bultzaturik. “Bizioa hartu nion berehala, hainbat kezka eta desio bideratzeko modu bat ikusi nuen, giro euskalduna, desberdina... Ez dut esango horretarako jaio naizenik, baina ez dut nire bizitza bertsolaritzarik gabe imaginatzen”. Hamaika txapelketatan parte hartu ondoren iaz lehen aldiz suertatu zen irabazle Arabako Txapelketan. Euskal Herriko bertsolari elkarteko kide izan da hasieratik; batzorde horretako eragile eta bertso irakaslea ere bai.

**Pasa den urtera arte Arabako Bertso Txapelketan ez zen emakumezko txapeldunik egon, zergatik uste duzu hain berandu arte itxaron behar izan dugula horrelakoak bizi ahal izateko?**

Oraindik orain esparru publiko gehienak gizonen monopolizatzen dituzte eta kostatzen ari zaigu gure lekua egitea. Zorionez emakumeok aspaldian lapurtutako eremu bat berreskuratzen ari gara, eta uste dut ekarpen handia egingo diogula bertsolaritzari datozen hamarkadetan. Gaur egun, bertsolaritza mistoa da eta berdinetik berdinerari lehiatzen gara gizonekin, horregatik uste dut egoera baikor egoteko modukoa dela: herrialde gehienetan, parte-hartzaileen artean oso neska gutxi egon arren, lehen hiru postuetan neskaren bat egon da. Emakumeak bertsotan gutxi gara, baina onak!

**Iaz jantzi zenuen lehen aldiz txapela, nola bizi izan zenuen une hura?**

Kariño handiz, nire bizitzako unerik gozoenetariko bat izan zelako, gainera azken txanpa Iñaki Viñasprekin egiteak poz handia eman zidan, laguna dudalako eta entrenatzen elkarrekin ibili izan ginelako, egun horretan entzuleen aldetik jaso nuen berotasuna ezin da hitzez azaldu.

**“NIK TXAPELDUN BATI GAUZA BAKARRA ESKATUKO NIOKE: AUTENTIKOA IZATEA”**

**Zeini eskaini zenion txapela?**

Aurpegia eman ezin dutenei, bertso-eskoletako neskei, familiari eta bertsoa maite duten euskaltzaleei. Ez zitzaidan jende gehiago kabitzen.



**Zer-nolakoa da zure ikasleak oholztan ikustea?**

Gauza ederra da, bertso-eskola laborategi moduko bat, baina oholztaren gainean bihurtzen da bat benetan bertsolari. Nire ikasle bat oholztan lehen pausoak ematen ikusten dudak bakoitzean emozio-natzen naiz. Pentsatzen dut: Hara, atera dugu beste bat!

**“PLATONEK OSO ONGI AZALTZEN ZUEN: BERTSO IRAKASLEA EMAGINA DA, ERDITZEN LAGUNTZEN DUENA, BAINA NORBERA IZANIK ERDITZEN DUENA ERE”**

**Nolakoak dira Arabako bertsozaleak?**

Satelite samarrak, euskaltzaleak lehendabizi eta gero bertsozaleak... Uste dut horregatik maite ditudala beste lurraldeetakoak baino gehiago. Horretan ere originalak gara.

**Nola aurreikusten duzu aurtengo txapelketa?**

Oso lehiatua, txapela lortu nahi duenak ez dauka ezer galtzeko, txakur gosetua bezalakoa da. Nik badakit txakur gosetua izatea zer den... Txapela defendatzen ez daukat esperientzia handirik, baina hala ere, ez didate horren erraz kenduko!

**Nobedaderen bat egongo dela uste al duzu?**

Baliteke finalean beste neskaren bat egotea... hala izan dadila!

## ANDERE ARRIOLABENGOA

### 25 URTE. ARAMAIO

Zuzenbidea ikasi ondoren abokatu lanetan dihardu bertsolari gazte honek. Arabako eskolartekoetan, San Prudentzion eta Arabako hainbat Txapelketatan parte hartu du eta bere beldurrik handiena finalera heltzea dela aitortu du. “Konpromiso handia da hori, ez dut sekula nire burua txapeldun ikusi”. Momentuz, saio txukunak egitea eta bere buruarekin pozik sentitzea da bere erronka. Baliteke aurten Anderek bere beldur horri aurre egin behar izatea, zeinek jakin!

#### **Zein izan zen zure lehengo kontaktua bertsolaritzarekin?**

16 urterekin ostiral batean lagunekin bilduta nengoela nire lehen-gusua (Manex Agirre bertsolaria) gurera etorri zen. Oihane izeneko neska bat bertso eskola bat ematera etorri behar zela esan zigun eta bertan parte hartzea animatu ninduen. Ordutik “engantxaturik” nago.

#### **Nola definituko zenuke bertsolaritza?**

Hizkuntza eta jolasa uztartuz lagunak egin eta euskal kulturaren murgiltzeko bidea da bertsolaritza. Ekintza ederra da baina askotan benetan adierazi nahi duzuna esatea zaila suertatzen da. Neurriak, errimak... asko mugatzen du bertsolaria.

**“OHOLTZAK ERAGINDAKO HANDITASUNAK  
LIGATZEA ERRAZTEN DIGU, BAINA BEHIN ARTAL-  
DETIK KANPORA, BESTE EDOZEINEN MODUAN  
ARITZEN GARA”**

#### **Gaur egungo bertsolaritza modernoaren ezaugarrietako bat testu luzeagoen beharra omen da, zergatik?**

Luzatzearena bertsolariek euren buruarekiko duten erronka bat da, etengabe aurrerapausoak eman nahi ditugu, beti apur bat gehiago lortu arte. Bertsolari gazteak dira batez ere hobetzearen aldeko apustu iraunkorra egiten dutenak.

#### **Zein izan da bizi izan duzun unerik txarrenea? Zergatik?**

Duela hiru urteko Arabako Txapelketako finalerdietan izan zen. Hasieratik gaizki aritu nintzen eta buruan neukan bakarria oholtzatik jaistea zen, handik ospa egin nahi nuen kosta ahala kosta! Ez zitzaidan ezertxo ere ondo ateral!

#### **Arabako bertsolaritza nolakoa dela esango zenuke?**



Gaztea, alternatiboa, aktiboa, konprometitua eta militantea. Gainera bertsolarion artean oso harreman ona daukagu. Gipuzkoan eta Bizkaian adibidez bertsolari ugari daude eta Araban askoz gutxiago izanda gure arteko erlazioa estuagoa da. Probintzia desberdinetako bertsolarien artean pikea suertatu ohi da, hori bai, pike sanoa!


#### **Aritu al zara inoiz bertsotan euskara ez den beste hizkuntzaren batean?**

Bertsolaritza Euskal Herritik kanpo ere jorratzen da, Kuban edo Kanarietan esaterako. Hizkuntza bakoitzak bere errima eta neurri propioak dauzka bertsotan aritzeko. Beraz, euskarazko egiturarekin bertsoak erdaraz egitea zaila da, baita alderantziz ere. Dena den, esperimentatzea ondo dago. Behin arabieraz aritu ginen bertsotan, izan ere, euskarazko bertso bat gaztelerara itzuli genuen eta aldi berean lagun marokoar batek arabierara itzuli zuen. Eraitza arraroa izan zen baina interkulturalitatea bultzatzeko modu bat da eta hori beti dago ondo.

**“BERTSOLARIEN ARTEKO PIKEAK SANOAK DIRA,  
EGURRA BERTSOTAN GELDITZEN DA, EZIN DIRA  
ESANDAKOAK GAIZKI HARTU”**

#### **Bertsolariak kuxkuxeroa izan behar du?**

Kuxkuxeroa bainoago, lotsagabekoa. Bertsotan esandakoa errealitatea baino gehiago asmakizuna da batez ere. Bertsolariok egia gure erara esaten dugu, gure egiak botatzen ditugu■



**GORETTI**  
**ILEAPAINDEGIA**  
 Hedegile kalea (Korre), 14  
 (San Migeleko pasabidea)  
 TI: 945 12 08 88 - 01001 - GASTEIZ

**LA RIOJANA**  
 on egin!!! **jatetxea**  
 bokatak,  
 pintxoak, kazuelatxoak  
 Aiztogile kalea (Kutxi), 33  
 tfnoa. 945 25 02 39

**Zure denda erotikoa**  
**SEX**  
**PITILIN GORRI**  
 Sexua euskaraz bizi  
 GASTEIZ  
 Tren geltokiaren ondoan  
 Tel: 945 15 42 60  
 DONOSTIA OIARTZUN

**DIBUtec**  
 Paper Bereziak  
 Arte Ederretarako Materiala  
 Ink, jet original eta birziklatuak  
 Bulego Materiala  
 Enkoadernazioak  
 Plastifikazioak  
 Kopiatuak  
 Komiseten Estampaketak  
**azkarprint**  
 Inprimatua / Inprimategia  
 Edozein inprimaketara  
 mota.  
 • PAPERTEGI TEKNIKOA • Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ INPRIMATEGIA

**Eramun**  
 Argazki - Estudioa  
 Heradio Fournier, 23  
 (laborategia)  
 945 13 71 02  
 Askatasun kalea, 5  
 945 26 19 91

**Bacalao Giraldo**  
  
 • Eguneko makailu gesaldua  
 • Makailua eramateko prest  
 • 36 errezeta ezberdin  
  
**ERAMAN ETA JAN**  
 "kalitatea eta erosotasuna  
 zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25  
 Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36  
 Gorbeia Merkatua - Zaldian plaza  
 GASTEIZ

**El Clarete**  
**jatetxea**  
  
 unai eta patxi fdr. de retana  
 zerkabarren kalea, 18  
 gasteiz 945 263 874

**KIDE**  
**APAINDURA**  
  
 Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Txikia zenetik ezagutu du txirrindularitza Javier Ruiz de Larrinagak (Ametzaga. Zuia, Araba. 1979). Bost urte zituela hasi zen Murgiako Txirrindularitza klubean, eta kategoria ezberdinetan aritu ostean, 16 urte zituela "serioago" ekin zion pedalei eragiteari. Modu profesionalen aritzeko aukera ordutik aurrera ireki zitzaion. Bai eta suertatu ere: bi urtez ibili baitzen Kaiku taldearekin. Gerora, taldea desagertu eta babeslerik gabe zenean, ziklo-kroSean hasi zen Ruiz de Larrinaga. Bi urte daramatza kirol hori praktikatzen, eta garaipen ugari lortu ditu dagoeneko. Duda barik, ziklo-kroseko promesa handia da Ruiz de Larrinaga gaztea.

***“Nazioarteko maila ikusita,  
oraindik lan asko egiteke daukat”***



**t. edurne begiristain**

**a. edorta sanz**

### **Zergatik egin zenuen salto txirrindularitzatik ziklo-krosera?**

Txikitan ere noiz edo noiz aritu nintzen ziklo-krosetako lasterketetan, eta esperientzia gustatu arren, sekula ez nuen serio hartu. Areago, beti azken postuetan geratzen nintzen. Orduetik, betidanik izan dut barruan ziklo-krosetan aritzeko irrika. Orduan, talderik gabe geratu nintzenean, ziklo-krosetako lasterketa batean edo bestean parte hartzen hasi nintzen motibazio horri euste aldera. Horrela ekin nion, eta ez zitzaidan txartoe-gi atera saialdia. Izan ere, duela bi urtetik hona bost lasterketa irabazi ditut, serio hartu dut eta dexente hobeto aritzen naizela uste dut.

### **Ziklo-krosetan denbora gutxi eramangatik ere, marka nahiko onak lortu dituzu. Pozik, ezta?**

Bai, noski. Neu ere harrituta nago izan dudana bilakaerarekin. Egia da ziklo-krosetan ez dela jende askorik aritzen dedikazio osoz, baina argi daukat ahal dudana gehiena ematen jarraitu behar dudala entrenamenduetan.

### **Erreperidera bueltatzea erabat baztertu duzu?**

Txirrindularitzaren egoera zein den ikusita,

baietz esango nuke. Gaur egun dirua ematen duena erreperidean aritzea da, ziklo-krosetan babesleak bilatu behar dituzulako dirua galdu nahi ez baduzu. Baina orain arte egin dudana lanarekin uste dut aukera gehiago izango ditudala babesleren bat lortzeko ziklo-krosetan txirrindularitzan baino, eta akaso egunen batean ziklo-krosetik bizitzeko parada izango dut. Hemengo hedabideek gero eta kasu gehiago egiten diote kirol honi, baina hemendik kanpo oraindik ez du oihartzun handirik, eta horregatik publizitate etxeak ez dira horrenbeste animatzen kirol mota hau babestera.

### **Kanpotik begiratuta ziklo-krosak gogorra ematen du, esfortzu handia eskatzen duela dirudi... Hala da?**

Bai, horrela da. Fisikoki aski eskatzen du. Ez baita soilik bizikletaz ibiltzera mugatzen, hura sorbaldara igota ibili behar duzulako ere. Baina, aldi berean esan behar da ordubeteko ahalegina baino ez dela, eta erreperidean, berriz, lau orduko lasterketak izaten direla. Hortaz, entrenamenduari dagokionez, ez da erreperideak eskatzen duen mailara iristen.

### **Erreperidearekin alderatuta, zein berezitasun ditu ziklo-krosak?**

Lasterketako giroa askoz politagoa da, jende gutxiago aritzen denez, dedikazioa erabatekoa izaten baita. Publikoarentzat

erosoagoa izaten da lasterketak ikustea, ez baita lekuz mugitu behar. Giroa ere oso polita da.

### **Eta alde txarrik ikusten diozu?**

Alde txarrik aipatzekotan esango nuke orain arte kasu gutxi egin zaiola. Baina, egia da apurka indarra hartzen doan kirola badela.

### **Zenbat denbora eskaintzen diozu entrenatzeari?**

Urriari lasterketak hasiko direnez, pentsatu dut uztaila bitartera lasai hartzea, bizikletaz nire kasa ibiltzea, baina erabat deskonektatu gabe. Ekainetik aurrera bizikleta eta gimnasioa uztartzen hasiko naiz, abuztuaren laupabost orduko entrenamenduak egin, eta irailean entrenamendu orduak jaitsiko ditut, baina intentsitatea areagotuz.

### **Nola ikusten duzu zure burua ziklo-krosetan? Zeintzuk dira zure ahulguneak? Eta bertuteak?**

Ziklo-krosetan teknika ona izatea bereziki garrantzitsua da, eta ni arlo horretan apur bat oker nabil. Baina kontuan hartu behar da bakarrik bi urte daramatzadala honetan, eta beraz, jakin badakit hobetu dezakedala. Horretan ari naiz behintzat. Eta bestetik, bertuteei dagokienez, esango nuke nahiko konstantea naizela, gorabehera handirik gabe.

### **Belgika eta Holandan puntako ziklo-**



**krosa egon da betidanik. Maila horretara iristea zaila ikusten duzu?**

Hemen ez bezala, herrialde horietan ziklo-krosak txirindularitzak haina garrantzia dauka. Jarraitzaile asko ditu, eta horrek diru gehiago mugitzen duenez, jende asko bizi ahal da ziklo-krosetik. Estatu osoan Euskal Herriak dauka ziklo-kroseko mailarik altuena, tradizio handiena duen tokia ere haxe delako. Baina hemendik kanpo, ezer gutxi dago. Gaur egun, beraz, Holanda edo Belgikarekin lehiatzea oso zaila dugu.

**Zuk dagoeneko marka onak lortu dituzu etxean. Ez da asko esatea hoberenetakoa zarela gaur egun. Nazioarteko txapelketetara salto egiteko garaia dela uste duzu?**

Bai. Munduko txapelketan parte hartu ondoren buelta asko eman dizkiot buruari, ohartu bainaiz nazioarteko maila ikusita, oraindik lan asko egiteke dudala. Horregatik uste dut gehiagotan atera beharko dudala kanpora lasterketan parte hartzera.

**Zale asko dituzula irakurri dut, zu animatzera leku guztietara doazenak.**


Bai, bai. Erabat harrituta nago jarraitzaileekin. Trevisora, esaterako, herriko hogeita bost lagun joan ziren. Ez da gutxi! Eskertzeko modukoa da. Lasterketa guztietara doaz, oso ondo portatzen dira, eta animo izugarriak ematen dizkidate. Haiek lasterketetan ikusteak indar handiagoa ematen dit pedalei eragiteko.

**Hedabideekin apur bat haserre zaudela jakin dut, beti esaten ei dutelako zure garaipenak besteen akatsen ondorio izan direla...**

Bai, hasiera batean prentsan halakoak agertzen ziren, baina uste dut erakutsi dudala nik nire meritu propioz irabazi dudala, nire esfortzuegatik irabazi dudala: zortzi lasterketa irabazi ditut, Espainiako txapelketan hirugarren geratu naiz, mundu mailako txapelketan egon naiz... Ez dut uste dena kasualitate hutsa izan denik. Errespetua merezi dudala uste dut.

**Zeintzuk dira etorkizunera begira dituzun erronkak edo helburuak?**

Estatu mailan hoberenetakoa izan nahiko nuke. Eta, oro har, aurrera egitea. Oraindik 28 urte ditut eta ziklo-krosean aritzeko adin oso ona da. Aurretik urteak ditut hobetzeko■



## Andre Maria Zuriaren plaza

Gasteizko postalik ezagunena aldatu egingo da. Andre Maria Zuriaren plazaren eraberritzearekin batera Gasteizko sinbolo hori eztabaidagai bihurtu da. Lorategiak kendu izana, monumentua kendu ez izana... batzuk alde eta besteak kontra. Herriko plazan adostu eta eztabaidatu ohi ziren herriko gaiak. Baina nork erabakitzen du herriko plaza horren eraberritzea? Hona hemen GEU-k plazaratu eta jasotakoa:

**t./a.** ainhua arriaga & naroa cuesta

1. Zer deritzozu Andre Maria Zuriaren plazaren eraldatzeari?
2. Monumentua bai ala ez?
3. Nahikoa izan da hiritarron parte-hartzea hartu den erabakirako? Zelan hobetu liteke horrelako erabaki baterako herritarron parte-hartzea?



**Iker Fernandez de Ortega. Geologoa**

- 1.- Gasteizko alkateak ez duela balore nahikorik biztanleriari entzuteko, benetako erreforma bat egiteko eta behin betikoz monumento hori hortik kentzeko. Berez, monumentua alde batera utzita, eraldaketarekin plazak irabaziko lukeelakoan nago.
- 2.- Ez, uste dut guztiz desfasatuta dagoela. Plazak monumentu gabe asko irabaziko luke eta horregatik ez dut uste hemen egon behar denik.
- 3.- Egitea inkesta bat non benetan hartzen den kontuan hiritarron iritzia.



**Alejandra Zamorano. Dendaria**

- 1.- Modernoa, desberdina iruditzen zait. Polita geldituko dela uste dut. Nahiago dut egingo duten plaza berria aurrekoa desfasatuta baitzegoen.
- 2.- Monumentuaren lekua hori da. Beste leku batera aldatuko zutela entzun nuen edo horrelako zerbait, baina bere lekua hori delakoan nago.
- 3.-Gasteiztarron iritzia kontuan hartu beharko lukete. Agian inkesta batekin edo...



**Marta Romero. Ileapaintzailea**

- 1.- Ez zait batere gustatzen, lehen askoz gehiago gustatzen zitzaidan. Niri lorategiak gustatzen zitzaizkidan.
- 2.- Bai, gelditzeari ondo deritzot.
- 3.- Ez dakit... Tranbiarekin berdina gertatzen da, nik jendearekin hitz egin dut eta ez daudela ados diote. Baina hala ere, egin egiten dira... Niri oraindik ez dit inork ezer galdetu!

## idazleen zutabea

### Auto-konfirmazioa

**t.** katixa agirre



Esan didate zutabe hau idazle gasteiztarrentzat erreserbatuta dagoela, hau dela bere talaia pribilegiatua, Ken Follett-i deitu diotela, baina honek kalabazak eman dizkiela (lanpetuta samar omen dabil bere azken liburuaren promozioarekin, gizajoa), eta azkenean niri deitu didate, niri, Follett-en hutsunea bete dezadan.

Zeinen ondo! Azkenean idazle eta gasteiztar. Ez pentsa erraza izan zaidanik. Orain arte nire identitatearen bi datu horiek ez dira batere argi egon eta askotan linbo batean sentitu dut neure burua.

Azken bolada honetan Bilbon bizi izan naizenez, askotan bilbotar edo bizkaitartzat identifikatu izan naute. "Katixa Agirre bilbotarra..." Bai, niri ere egiten dit belarrian hozka. Eta ez niri bakarrik, ama ere asko haserretzen da horrelakoetan. Beste batzuetan ere gipuzkoarra ote naizen galdetu izan didate "euskaraz nahiko ondo" egiten dudalako (sic).

Baina, tira, ailegatu da eguna, eta azkenean gasteiztarra naiz. Peto-petoa, Geu Gasteizen idazten duten horietakoa.

Idazlea ere bai? Tira, askotan esan dut, modestia handiz, ez dudala neure burua idazletzat hartzen, ur sakon hauetan hasiberria baino ez naizela eta zerbait izatekotan idazle-gaia naizela eta bla-bla-bla. Baina, ze arraio, lehenengo pausua onartzea omen da: bai, idazlea naiz, eta harro nago. Modestia falta zaidala? Idazleak banitatez beterik bizi gara, aizue!

Askoz hobeto sentitzen naiz orain, auto-konfirmazio ariketa osasuntsu honen ostean. Gasteiztarra naiz eta idazlea. Baietz. Egia dela. Eta dena Geu Gasteizek zutabe hau eskaini didalako. Eta dena Ken Follett-ek huts egin dielako. Berak estatua bat du, bai, baina nik zutabea, eta zutabe honetan ez dute usoek kakarik egingo (pentsatu nahi dut).

Mila esker, Geu. Mila esker, Ken ■

geugaia

GENERO BERDINTASUNA

CORAL GARCIA DE LAS HERAS

BEREIZKERIAREN

AURKAKO BORROKAN



LA CONCILIACIÓN ES MENTIRA

8/marzo/2006

Yo concilio  
Tú concillas  
Ella concilia  
Nosotras conciliamos  
¿Vosotros conciliáis?  
Ellos (y el capital)

NO concilian



repetir  
365 veces

Hagamos del cuidado de la vida  
una responsabilidad de...



DÍA  
INTERNACIONAL  
DE LA  
MUJER



Fundación Sancho el Sabio Fundación

Feministatzat du bere burua Coral Garciak, nahiz eta emakume feministen elkarte baten militantea izan ez. 15 urte daramatza emakumeekin lanean eta horregatik, oso ondo ezagutzen ditu emakumeen errealitate desberdinak.

**CORAL GARCIA DE LAS HERAS**

# “Mundu osoko emakumeok gure arteko paktu bat egin beharko genuke”

**t. ainhoa arriaga a. edorta sanz**

Gaur egun, AZ prozesu parte-hartzaile Gasteizko enpresaren bitartez egiten du berdintasunaren aldeko lana. Besteak beste, emakumeen elkarteei euren beharrezanez begirako ikastaroak eskaintzeaz arduratzen da: emakumeen jabetzea, genero perspektibadun komunikazio ikastaroak, gizarte bitartekaritza ikastaroak, publikoaren aurrean hitz egiteko ikastaroak... Lanetik kanpo, AMA elkarrearen kide da, gaur egungo sisteman etxetik kanpo lan egin eta ama izatearen zailtasunak azaleratzen dituzten emakume baten elkartekoa.

## Jende askok beldur dio feminismo hitzari...

Bai, egia da askok beldur diotela, mesprezuz eta bere esanguratik kanpo erabili izan delako maiz. Talde irudikapenetik aldatu beharra daukagu zenbait pertsonak sortzeaz arduratu diren ideia hori. Feminismoa korrante ideologikoa da, ez emakume batzuen jarrera erradikala, askok uste duten bezala. Mundua era piramidalean antolatuta dago, eta gizonak du boterea. Feminismoa iraultza mota bat da, gizonezkoak eta emakumezkoak berdintasunean bizitzea bilatzen duen iraultza baketsua eta oso motela. Emakumezkoek eta gizonezkoek balore, aukera, eta eskubide berberak izan ditzagun. Luze joko duen mentalitate aldaketa estrukturala-

ren beharrean gaude. Bestalde, aipatu nahi nuke mugimendu feministek, beste gizarte mugimenduek bezala, zikloak dituztela, batzuetan izugarritzko indarra dutelarik eta beste batzuetan lasaitzen direlarik. Ez naiz feministen entitate batekoa, baina emakume feminista gisa, ematen du batzuetan ez dakigula nondik jarraitu gure borroka.

## Zeintzuk dira zure eguneroko helburuak emakume taldeetara lanera zoazenean?

Borroka honetan bat egitea. Guztiok berdintasunerako lan egitea. Marcela Lagardek emakumeen ahizpatasunaz hitz egiten du. Paktu batera iritsi behar gara, hemengo emakumeak, beste herrietakoak, beste herrialdeetakoak... denak batzeko eta elkarri babesa emateko.

## “FEMINISMOA IRAULTZA MOTA BAT DA, GIZONEZKOAK ETA EMAKUMEZKOAK BERDINTASUNEAN BIZITZEA BILATZEN DUEN IRAULTZA BAKETSUA ETA OSO MOTELA”

**Gaur egungo emakume modernoaren eredua, super emakumearena dela esaten da. Ama, etxeko langilea, enpresa**

## emakumea... Lanean eta bizitza pertsonalean arrakasta lortzea bateragarriak dira gaur egungo emakumearentzat?

Lanean gero eta erantzukizun gehiago lortzera jo nahi du gure parte batek, botere karguak hartuz. Baina gure beste alderdiak, familiari, seme-alabei, harremanei ematen die garrantzia. Kasu gehienetan ez dira bateragarriak bi atalak. Esaterako, zuzendarien bilerek hurrekin bazkaltzera joateko aukera eman arte ezingo da aurrerapauso handirik egin alor honetan.

Emakumea gaur egungo eritmoetan sartzeko beharra izan du aurrekoak doituz. Baina beste itxurakeria bat gehiago baino ez da. Emakume hori lan arrakasta lortzen ari denean, etxeko lanak egiten dituen beste emakume bati esker izaten baita. Ez da baloratzen lehen mailako beharrezan betetzeko egin behar den lana, ez gara produkzio makinak.

## Gizartea kontzientea da dagoen genero desberdintasunei aurre egin behar zaiela?

Ez, ez. Alde batetik legeak daude, familiartekoa berdinkatzeaz arduratzen direnak adibidez. Helburu idealak jasota daude. Baina hala ere, ez dira gertatzen. Azken finean dagoena, emakumearentzako lan jarduera bukaezinak dira. Mentalitate aldaketa eman behar da, gizonezkoek dituzten hainbat pribilegio galdu behar dituzte... Gizonezkoak



dira ulertu behar dutenak ordaindu gabeko lanak direla bizirauteko garrantzitsuenak.

**Genero berdintasunaren borroka honetan, esaten da emakume askok tradizionalki gizonenak izan diren ezaugarriak hartu izan dituztela. Ados zaude honetan? Zer irakurketa egiten diozu?**

Kontsumoaren eta produkzioaren sistema kapitalista honek, tradizionalki gizonezkoenak jo izan diren ezaugarriak baloratzen ditu. Kontua da ezaugarri horiek ez direla ez gizonezkoenak, ez eta emakumezkoenak ere. Sistema patriarkalean jarraitzen dugun bitartean balio duena, tradizionalki gizonei egotzi zaizkien ezaugarriak izango dira.

Etxeko lanek ez dute balio, seme-alaben zaintzeak ez du balio, gure nagusien zaintzeak ez du balio... Ez dute gizarte aintzatespenik, ezta soldatarik ere. Mundu honetan arrakasta lortu nahi baduzu lan merkatu honetan sartu behar zara eta behin bertan lehiakortasuna eta tankerako baloreak indartzen dira.

### **Zertan datza hainbatetan entzun dugun emakumearen jabetzea?**

Oro har ez dut uste jabetuak gaudenik, nigandik hasita. Jabetzearen borroka oso pertsonala dela deritzot, prozesu jarraia eta oso motela da. Formazio falta daukagu. Garrantzitsua da jakitea zergatik ez dugun izan botere hori, zergatik uste dugun ez dugula,... Momentu jakinetan ez dugu gure burua gai ikusten erabakitzeke, zerbait aurrera eramateko. Formakuntza beharrezkoa da. Sistema patriarkala ondo ezagutzeke, androzentrismoak zein punturaino duen eragina jakiteko, bakoitzak jaso duen hezkuntzaren eraginaren gainean egoteko eta zergatik ez diogun gure buruari erabakitzeke boterea esleitzen jakiteko.

### **“GIZONEZKOAK DIRA ULERTU BEHAR DUTENAK ORDAINDU GABEKO LANAK DIRELA BIZIRAUTEKO GARRANTZITSUENAK”**

### **Zer lan dute egiteke hedabideek bide honetan?**

Erakundeak dira berdintasunarekiko sentiberatasuna izan dezaten ardura hartu behar dutenak. Prentsa idatzia eta telebista oso sexistak dira oraindik. Emakumeak protagonista diren berriak eta gizonak protagonismoa dutenak aztertzean oso argi ikusten da. Ez bakarrik agertzen diren kopuruan, baita informazioaren edukian ere. Bestalde, lengoia daukagu, oso lengoia sexista erabiltzen da hedabideetan. Kirolen arloan adibidez, emakumeentzako erabiltzen diren adjektiboak eta gizonezkoentzat erabiltzen direnak ez dira berdinak. Hedabide guztien...



tzako genero arloko formakuntza beharrezkoa delakoan nago. Erakundeak gaintetik egon beharko lirateke, legez berdina izan gaitzen bermatzeko eta berdintasunera bidean aurrerapausoak eman ditzagun.

**“SISTEMA PATRIARKALEAN JARRAITZEN DUGUN BITARTEAN BALIO DUENA, TRADIZIONALKI GIZONEI EGOTZI ZAIZKIEN EZAUGARRIAK IZANGO DIRA. ETXEKO LANEK EZ DUTE BALIO, SEME-ALABEN ZINTZEAK EZ DU BALIO, GURE NAGUSIEN ZAIINTZEAK EZ DU BALIO...”**

**Martxoaren 8a iristear dago. Zer dakar zuretzat egun honek?**

Martxoaren 8a jai bat da. Emakume langilearen eguna da, hau da, emakume guztien eguna. Batez ere, lan merkatura ateratzeko



pausoa eman zutenena. Akusazioak iritsi litezke, gizonezkoek zergatik ez duten aldarrikapenerako langileen egunik esaterako. Baina egia dena da, emakumeak izan zirela borrokatu behar izan zutenak eta izugarri gainera, aukera hori izateko. Agian 500 urte barru ez dugu izango zertan ospatu Martxoaren 8a, nork daki. Baina gaur egun, ez da hainbeste denbora pasa fabrika horretan gertatu zen tragedia horretatik.

**Nola ikusten duzu etorkizuna?**

Borrokan jarraituz. Militantzia geldiezina da, lagunekin borrokan jarraituz, bikoteki-dearekin borrokan jarraituz, lanean borrokan jarraituz,... leku guztietan. Luzera begira, berdintasunezko gizarte bat lortuko dugu. Espero dut behintzat lortzea, bestela hau utzi eta loreak saltzera joango nintzateke■

**MENDIA OPTIKA**  
DESDE 1856 AZ GERO  
**MULTIOPTICAS**

Andre Maria Plaza  
Olagibel, 33  
Gasteiz

bidean  
euskararen  
bidean

## KOLDO TXURRUKA

# “Gasteizko Jaietan Txosnetan jotzea da nire ametsetako bat”

**t. josune garcia de bikuña**

**a. edorta sanz**

**Zein da duzun biziorik handiena?** Lagunak eta parranda direla-eta, gaua da nire bizio handienetarikoa.

**Zer eskatzen diozu bizitzari?** Poztasuna, alaitasuna eta arazo larririk ez izatea. Topiko bat bada ere niri, nire lagunei eta familiari dena ondo joatea.

**Zerk ateratzen zaitu zure onetik?** Jendeari gauzak behin eta berriro azaldu edo errepikatu beharrak nire onetik ateratzen nau.

**Kirolzalea zara?** Bai, betidanik izan dut futbola gustuko eta lagunok osatu dugun futbol talde batean ari naiz. Astebururo jokatzeko dugu eta primeran pasatzen dugu. Azkenaldian, gainera, saskibaloia gero eta gehiago gustatzen zait.

**Nola hasi zen zure musikarekiko zaletasuna?** Nire familian betidanik musika-tresnak jo izan dira eta txikitan musikaren munduan sartzeko aukera eman zidatenetik ikasten nabil.

**Ikusi ez duzun zein talde gustatuko litzazuke zuzenean ikustea?** Koma, gazte-gaztetatik entzuten dudalako.

**Film bat?** ‘Medio flipao’ filma gustatzen zait barrea eragiten didalako.

**Liburu bat?** Detective Flanagan.

**Oporrak non eta norekin?** Londres edo Amsterdam, halako hiri handi batera joango nintzateke neska-lagunarekin.

**Nora ez zinateke joango?** Ez Madrilera, ezta Portugalera ere.

**Zer da Gasteizek duen onena?** Alde zaharrean egunero aurkitu dezakezun giroa.

**Eta txarra?** Alde batetik agintariak, eta bestetik, dagoen ekintza eskaintza nahiko urria dela iruditzen zait.

**Eguna ala gaua?** Gaua nahiago dut jendearekin egoteko eta ondo pasatzeko aukera ematen duelako.

**Gasteizko gaua non?** Ateratzen hasi nintzenetik Kutxileria (Aiztogile) kaletik ibiltzea gustatzen zait bertan daudelako koadrilakoei gustatzen zaizkigun tabernak.

**Parranda ostegun, ostiral edo larunbatetan?** Gorputzak ahal duenean hiruretan, kar-kar... baina hori gutxitan gertatzen da. Larunbatetan beti ateratzen naiz, baina ostegunetako giroa ere berezia da eta gustatzen zait.

**Euskaraz bizi al daiteke Gasteizen?** Nahiko zaila da osotasunean euskaraz bizitzea hiri honetan.

**Nola ikusten duzu euskararen etorkizuna?** Egia esan ez dut batere argi ikusten, Euskal Herri mailan Gasteizen baino etorkizun gehiago ikusten diot.

**GEU elkartearen eta aldizkariaren berririk? Noiztik?** Txikitatik ezagutzen dut. Nire arrebak harpidedunak dira eta betidanik ikusi dut aldizkaria etxean.

**Amets bat?** Gasteizko jaietan txosnetan jotzea da nire ametsetako bat.

**Iragana, gaur eguna edo etorkizuna?** Gaur eguna. Iragana ez dago aldatzerik eta etorkizuna nora eramango zaituen ez dakizu, beraz, momentua aprobetxatu behar dugu.

**Zer eskatzen du herriak?** Independentzia ■



Koldok egunari ahalik eta etekin gehien ateratzen dion horietakoa da. Medikuntza ikasketak burutzearekin batera musika klaseak eman eta gitarra jotzen du talde batean 23 urteko gasteiztarak. Lagunekin egoteko eta parrandarako denborarik ez zaio falta, hala ere. Oso alaia eta baikorra da eta irribarre batez begiratzen dio bizitzari. Gaztea bada ere gauzak oso argi ditu eta gustura sentitzen da beti txirrinduaz zeharkatzen dituen Gasteizko kaleetan.

# INTERNET, EDOZEIN TOKITATIK

TESTUA: GORKA JULIO

**INTERNET JADA EZ DA ORDENAGAILUETARA MUGATZEN; GERO ETA ARRUNTAGOA DA EUSKARRI TXIKIAGOTAN INTERNET ERABILTZEA. ZENBAIT WEBGUNEK ETA ZERBITZUK HAIEN BERTSIO 'MUGIKORRA' ESKAINTZEN DUTE.**

Konexio motak

•**GSM.** Audioa garraiatzeko teknologia berria erabiltzen du datuak bidaltzeko.

•**GPRS.** Aurrekoa baino azkarragoa da (gehienez, 171,2 kbit segundoko).

•**3G UMTS.** Azken boladan datuak garraiatzeko erabiltzen hasi den teknologia honen abiadura, aurrekoarekin alderatuta, askoz ere handiagoa da (gehienez, 384 kBit segundoko).

•**Wifi.** Internetera sartzeko kablerik gabeko konexio arrunta. Haren abiadura zerbitzua kontratatu duenaren arabera izaten da, baina normalean nahiko altua izaten da. Telefono gehienek ez dute wifi konexio batekin lotzeko aukera oraindik.

Zertarako erabili

Aipatutako konexioek hainbat abantaila eta muga dituzte. Haiek gehiegi kontuan hartu gabe, gauza asko egin daitezke, eta horretaz ariko gara orain.

•**Posta elektronikoa eta nabigatzaileen hainbat zerbitzu.** Zenbaitetan, sakeleko telefonoek posta elektronikoa irakurtzeko aplikazio bat ekartzen dute; aplikazio hori konfiguratzuz gero, gure posta elektronikoa bertan irakurtzea lortuko dugu. Beste batzuetan, zerbitzu hau eta beste zenbait ematen dituzten atariak daude: Yahoo!

Mobile (<http://mobile.yahoo.com/>), MSN Mobile (<http://mobile.msn.com>) edo Google Mobile (<http://mobile.google.com>).

•**Blogean idatzi.** Blogger-ek

(<http://www.blogger.com>) eta antzeko blog sistemek zuzenean sakeleko telefonotik mezuak bidaltzeko aukera bat dute.

•**Bideoak ikusi eta igo.** Youtube-k, bertsio



## HARRITU GAITU

Ikastolen Federazioak prestatutako **Ikasys**. Proiektu berriak harritu gaitu. Proiektu honetan, miniordenagailu eramangarri bana izango dute ikasleek, haien lanak egiteko. Horri esker, norberari egokitutako jarraipena egingo zaie, eta curriculum eduki propioak izango dituzte. Informazio gehiago, haien gunean (<http://www.ikasys.net/wordpress/>).

## KATXONDOENA

Teklatuarekin jolasteko. Joko erraz baina dibertigarri berri bat dabil interneten. Teklatu arrunt batean esku bakar batez idatz daitekeen hitz luzeena bilatzea da kontua. Ingeleseko informazioa <http://josel3.blogspot.com/2008/02/one-handed-words.html> webgunean duzue. Gurean, Arkaitzek bota digu erronka (<http://www.mutilmedia.com/?p=259>).

## INFORMAZIO BILA


Sukaldean ikasteko. Sukaldaritza maite duzuenontzat, ideia berriak topatzeko edo halako kontuetan oso trebeak ez zarenontzat, errezeta mordo duen webgune bat gomendatuko dizuegu: <http://sukaldean.com/>. Bertan, etxean egiteko moduko errezeta bikainak bildu dituzte David de Jorgek eta Hasier Etxeberriak.

mugikorra izateaz gain (<http://m.youtube.com/>), gure sakelektotik MMS multimedia mezu bat bidalita bideoa igotzeko aukera ematen digu. Eyespot-ek (<http://eyespot.com/mobileshare/>) bideoak igotzeko, ikusteko eta elkar trukatzeko tresna bat du.

•Gure lagun sarearekin kontaktua mantendu. Twitterren (<http://www.twitter.com/>) bitartez, gure lagun sarea osa dezakegu, eta zer egiten ari garen konta diezaiekegu haiei. Hau dena, internet bidezko aplikazioaren bitartez, eta nahi izanez gero, sakelekoan jaso (eta bertatik erantzun) ditzakegun mezuen bidez. Txioka-k (<http://www.txioka.net/>), euskal twitter erabiltzaileak biltzen saiatzen ari den sareak, ere badu bertsio mugikorra (<http://m.txioka.net/>).

•Gure jarioak irakurri. Bloglines (<http://www.bloglines.com/mobile/>) jario irakurgailuak sakeleko telefonoentzako bertsioa eskaintzen du, gure harpidetzak kudeatzeko. Google Readerrek (<http://www.google.com/reader/m/>) ere badu sakelekoentzako oso bertsio interesgarria.

Etorkizunean, sakelekoen bidez gauza hauek eta gehiago egiteko aukera izango dugu. Bideoa, soinua eta telebista telefonoan bertan izatea eguneroko gauza izango da, eta eduki horiek gure telefonotik bertatik eta saretik eskuratu ahal izango ditugu.



# 26

## %34,7

gutxiago irabazten dute, batez beste, emakume langileek gizonen baino, LAB sindikatuak salatutakoaren arabera. Arrazioen artean, LABek dio gizonen alderatuta emakumeek behin-behineko kontratu gehiago izaten ditzutela —emakumeen %33; gizonen %24—, eta oro har, behin-behineko langileek %43 gutxiago irabazi ohi dutela.

## 8.501

gune kutsakor daude, Greenpeace erakundearen arabera, Hego Euskal Herrian; gehienak metalurgia eta paper-gintza enpresak dira, baita kimika arlokoak ere. Gune kutsakor horien erdia Gipuzkoan daude, Bizkaian 10 dituzte, Araban bi, eta Nafarroan, bat. Zaborrak errausteko planten aldeko politika ere kritikatu du Greenpeacek.

biztanle dituzte, batez beste, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerriek. Inguruko beste lurralde batzuekin alderatuz gero, altuagoa da Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako udalerrietako populazioaren batez bestekoa. Hiru herrialde horietako populazioaren ia erdia udalerri nagusietan bizi da: %47 60.000 biztanle baino gehiago dituzten udalerrietakoa da.

**gaztezulo.com**  
Eduki berriak egunero

sexua·gaupasa·egun pasa·musika·sarezulo·hitzorduak·zinema·ikasi bai, baina·mundua·fotografikoak·literatura·teiltatupea·protagonistak·agenda·fotomaton·salerosketak·albiste bitxiak·etxeokak·komikiak

## Hezkuntza sistema nazionalerantz euskal curriculumuma!

Gasteizko Euskal Herriak Bere Eskola

Bost urte igaro dira Euskal Curriculumaren (EC) sortze prozesua abiatu zenetik eta egun, asko dira Euskal Curriculumaz mintzo direnak eta baita atxikimendua eman dioten eragileak ere. Hasieran utopiatzat jotzen zena apurka-apurka osatzen joan gara, Euskal Curriculumuma.

ECren kimua 96 urteko Ikastolen III. kongresuan kokatzen da, 'Ikastolen Curriculumaren euskal dimentsioa' deituriko txostenean. 2001ean Udalbiltza, Euskal Curriculumuma eraikitze aukera aztertu eta hezkuntza eragileekin harremanetan jarri zen. Ikastolen Elkartek (EHIK) aipaturiko txostena Udalbiltzari eskaini eta curriculumaren euskal dimentsiotik haratago, Euskal Curriculum propioa eraikitze apustua egin zuen. Bidaide berria gehitu zitzaion honi ere, Sortzen-Ikasbatuaz Euskal Eskola Publiko Berriaren elkarteak.

Honela bada, 2003 urtean Udalbiltza, EHIK eta Sortzen-Ikasbatuaz-ek, akordio historikoa sinatu zuten ECren definizioa 5 urratsetan egiteko.

### 1. Egitasmoaren oinarriak

Egitasmoaren oinarri filosofiko eta pedagogikoak biltzen ditu eta lanaren metodologia zehaztu.

### 2. Kultur adituen ekarpena

EC osatzen duten jakintzagaiak eta hauetan adituak direnen ekarpenak biltzen dituen lana.

### 3. Irakasle adituen proposamen teknikoak

Euskal Irakaskuntzan diharduten irakasle adituek euskal curriculumaz eginiko proposamen teknikoak. 'Derrigorrezko eskolaldirako euskal curriculumuma' lana aurkeztu zen.

### 4. Hezkuntza erkidego eta herritargoaren ekarpena

Batetik, Hezkuntza erkidegoak zein Hezkuntza arloko elkarte eta eragileek aurreko lana eztabaidatu zuten. Bestetik, Udalbiltza arduradun, 10 lan-eremu zehaztu eta herritarrek egindako ekarpenak Donostiako Kursaal aretoan aurkeztu ziren jardunaldi arrakastatsu batean. Ondoren, Aste Santu bitartean ekarpen guztiak bildu eta ECren mamia den EC espezifiko eztabaidatu eta osatuko da.



**EUSKAL KULTURAREN BIZIRAUPENA  
BERMATZEKO EUSKAL ESKOLAK, EC ARDATZ  
HARTUTA, TRANSMISIO KULTURALA  
ZIURTATU ETA ERABERRITU DEZAN**

### 5. Jasotako ekarpenekin aberastutako txostena onartzea.

Azkenik, aurreko atal guztiak batuko dituen liburukotea, ekainean egingo den batzar nazional batean onetsiko dena.

Zergatik behar dugun EC? Euskal Kulturaren biziraupena bermatzeko euskal eskolak, EC ardatz hartuta, transmisio kulturala ziurtatu eta eraberritu dezan. Eraberritzeko beharra 2003. urtean Bizkaia, Gipuzkoa eta Araban, 2.219 ikasleri pasatako inkesta batek adierazi zuen: ikasleek Euskal Herriko ezagutzan 4.1eko nota ateratu zuten, Europari buruzko 6.1ekoaren aldean. Hau da, euskal ikasleek ez dute Euskal Herria ezagutzen. Hizkuntza ereduak dagokienez gainera, EHren inguruko ezagutzak A, B eta D ereduak, 3.95, 3.85 eta 4.47koak izan ziren hurrenez hurren. Honek esan nahi du euskaraz ikasteak ez duela bermatzen EHren inguruko edukien transmisioa.

Beraz, ikasturte amaierarekin batera, 5 urte atzera jaio zen kimua loratzen ikusiko dugu. Inoiz baino gehiago gure indarra eta babesa eman behar diogu, nahiz eta indar normatiborik ez duen jakin. Are gehiago, EAEko Hezkuntza Saila lotsarik gabe Euskal Curriculum izenez EAEko curriculum dekretu berria saltzen ari den honetan. Lan teorikoa eginda dagoela, berebiziko garrantzia eman behar diogu praktikan jartzeari, hots, norbanakoaren hezkuntza esparruan txertatzeko konpromisoa hartu eta herriarena den proiektua aplikatua izan dadin lan eginez.

[gasteiz@euskaleskola.org](mailto:gasteiz@euskaleskola.org)

'MUGAKO BEGIRADAK'  
ERAKUSKETA

ZINEMAREN  
MUGEZ  
GOGOETA

Ikus-entzunezko hizkeraren mugak eta zinemarako adierazpen berriak aztertu dituzte bost zinema zuzendarik Mugako Begiradak erakusketan. Luis Alejandro Berdejo, Fernando Franco, Leon Siminiani, Jaime Rosales eta Isaki Lacuestak zinemaren bide berriez eta bide horien mugez hausnarketa egin dute Artium Arabako Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoan ikusgai dagoen erakusketan. Pantalla Partida ekoizpen etxearen, Neff zinema jaialdiaren eta Artiumen ekimenez egin da egitasmoa. **Martxoaren 31ra bitartean ikusgai** izango da, doan.





leon siminiani, fernando franco eta isaki lacuesta zine zuzendariak

**t.** edurne begiristain **a.** edorta sanz

Garbiñe Ortegaren, Mario Madueñoren eta Samuel Martinezen jatorrizko ideia batetik abiaturik Mugako Begiradak zinema beste modu batera espermentatu eta bizitzea bilatzen duen abentura da. Hiru komisarioek zinema komertzialaren ohiko narrazio eta estetikatik urrun dauden egitasmo digital banatan lan egiteko gonbidapena egin zieten bost zuzendari gazteei, eta haiek egindako lanaren emaitza da Mugako Begiradak. Ikus-entzunezko sei lan dira orora (Isaki Lacuestak izan ezik, gainerako zuzendariak bi egitasmo batean elkartu dituztelako), eta denek zinemaren hizkuntzaren mugei buruzko gogoeta proposatu dute. Muga horiei buruzko burutapenak komunean jartzeko elkarlanean aritu dira azken lau hilabeteotan zuzendariok, eta norberak lan-taldean izandako esperientziatik sortu du bere proiektua.

- **Leon Siminiani (Murtzia, 1971)** bere muga propioetatik abiatuta egin du bere lana, azterketa pertsonala eginez.
- **Jaime Rosales (Bartzelona, 1970)** irudiaren munduan teknologia digitalaren erabilerak duen eraginaz gogoeta egin du.
- **Fernando Francok (Sevilla, 1976)** irudikapenaren mugei buruzko hausnarketa egin du, heriotzaren tabua oinarri hartuta.
- **Luis Alejandro Berdejok (Donostia, 1975)** Terrence Malick-en Zeruko egunak kultozko filma eta George Lucasen Star Wars pelikula modu paraleloan aztertu ditu.
- **Isaki Lacuestak (Girona, 1975)** bi hausnarketa egin ditu: Argi Urdina izeneko instalazioan beirate gotikoen irudi aldakorraz egin du gogoeta; eta Gorputz zeharrargiak bideo instalazioan eremu publikoaren eta pribatuaren arteko mugak izan ditu aztergai.

## GARBIÑE ORTEGA.

### “Erakusketa

**Mario Madueño, Samuel Martinez eta hiruren artean bultzatutako proiektua da Mugako Begiradak. Nola sortu zitzaizuen ideia?**

Lagunak gara eta aspalditik hainbat egitasmotan elkarrekin ari gara lanean. Egun batean afari batean elkartu eta amesten hasi ginen zeintzuk diren gustuko ditugun zuzendariak, zeintzuk miresten ditugun lan egiteko duten eragatik, haien lanetan planteatzen dituzten gauzengatik, sentsibiltateagatik... Horri lotuta, Cahiers du Cinema aldizkarian proposatzen den ideia bat abiapuntu gisa hartu eta hainbat galdera bota genituen: nora dihoan zinema?, zein bide berri zabaltzen ari dira?, zeintzuk dira zinema definitzeko parametroak? Ideia horretatik abiatuta pentsatu genuen zinema espazio berri batean sartzeko oso jolas polita izan zitekeela gauza horietaz hausnartzeko. Beraz, zuzendari zerrenda zabal bat egin genuen, baina argi izanda bi gauza: bost zuzendari horiek egon behar zutela, eta abiapuntuak aipatutako hori izan behar zuela. Udalean eta Artiumen ekimena aurkeztu eta berehala oso harrera ona izan zuen bi erakundeetan. Horrela ekin genion bideari.



## Mugako Begiradak erakusketaren komisarioa bizirik dago, eta horrela nahi dugu mantendu”

**Berdejo, Franco, Siminiani, Lacuesta eta Rosalesen aldeko apustu argia egin zenuten hasiera-hasieratik. Zergatik zinemagile horiek eta ez beste batzuk?**

Nik uste zinema komertzialetik kanpo geratzen diren zinemagile horiek denak oso estilo ezberdinak dituztela, eta guretzat hori oso aberasgarria zen taldea egiteko. Hasieratik argi geneukan ez geniola zuzendariei enkargu soil bat egin nahi, hau da, erakusketari begira bi pieza egiteko eskari hutsa ez geniola egin nahi. Gure nahia zen haiekin momentua partekatzea, prozesuari halako energia, espazioa eta mimo handia emanez. Eta uste genuen bost zinema zuzendariak oso mundu desberdinak planteatzen zituztela haien lanean, baina denek badutela ezaugarri komun bat: oso zinema pertsonala egiten dutela, eta haien pelikuletan sentsibiltate handiko estiloa erakusten dutela.

**Zinemagileak elkarrekin bildu eta hausnartu bitartean, zein izan da komisarioek izan dutuen egitekoa?**

Gu haiekin bildu izan gara, eta eztabaidarako puntu batzuk ere planteatu izan dizkiegu. Gustatzen zaigu esatea Gran

Hermano edo “Anai Handia” bezalako bat egin genuela, nekazal etxe batean elkartu baikin, eta bizikidetza hori oso inportantea izan zelako energia berezi hori sortzeko. Eta gure lana izan da batez ere gauzak planteatzea, abiapuntua ongi azaltzea, eta guk jorratu nahi genituen bideetatik bideratzea. Eskatu genien haientzat inportantea zen zinema bileretara eramatea, batez ere mugen kontzeptuarekin zerikusia zuten film zati batzuk, eta horrek joko handia eman zuen eztabaidarako. Egia esan, elkarrekin biltzeko gogoia baino bestelako helbururik ez genuen izan, konpartitzeko asmoa baino ez.

**Gustura geratu zarete emaitzarekin? Pozik?**

Oraindik perspektibarekin begiratzeko denbora falta zaigu, baina gu oso pozik gaude haiek oso pozik geratu direlako, oso esperientzia aberasgarria izan delako guztientzat. Guk hasiera-hasieratik argi geneukan talde bat ginela, gu talde horretako partaide ginela, eta horregatik ez genuen ezer itxita eman nahi. Lan-talde horretan erakusketak forma ezberdinak hartu ditu denborak aurrera egin ahala, eta hori nabaritu da azken emaitzan. Nik uste bizirik

dagoen zerbait dela, eta horrela nahi dugu mantendu, gainera. Hau da, Gasteizen halako forma bat dauka, baina hurrengo batean beste modu batean egin daiteke. Guretzat hori oso inportantea da, egitasmoa bizirik mantentzeko eta lan-talde hori zaintzeko.

**Beraz, Mugako Begiradak beste egitasmo batzuetarako oinarri bilakatu daiteke...**


Bai, bai. Egia da lan dezente dugula oraindik Mugako Begiradak proiektuarekin, eta gustatzen zaigu esatea bidean geltoki bat baino ez garela, beste herrialde batzuetan ere egindako lana erakutsi nahi dugulako. Gainera gure asmoa da argitalpen bat egitea antzeko esperientziak islatzeko, museoaren espazioarekin jolasten duten zinemagile gehiago badirelako, eta beste proiektu interesgarri batzuk ere badirelako. Horri guztiari liburu forma eman nahi diogu, DVD batekin luzemetrai-dokumentala egiten ari gara... Gauza asko egiteke daude oraindik■

# proposamenak

cd

## 'mamba beat'

mamba beat. gh-07. hotsak.com



dantzarako musika proposamenak beren lekua hartzen ari dira euskal herrian, eta mamba beatek bere hondar alea ipini nahi du eszena horren finkatzean. jendeak une hori eskatzen duela uste du, dantza eta gozamina. erromeria-dance kontzeptua berreskuratu beharko litzateke, jendeak desmadratzeko gogo itzela dauka.

liburua

## haragia

eider rodriguez. susa-07. susa-literatura.com



'Haragia'  
Eider Rodriguez  
2007, narratiboa

giza harremanak, euren bizitzan aurrera edo atzera egiteko momentuan eta atakan aurkitzen diren pertsonaiak, egoera gogorrek, ohikoak izan daitezkeenak batzuk, erabat surrealistikak besteak. ezagutzen al du inork, akaso, arrazoi jakinik gabe nork bere buruaz beste egiten laguntzeko zerbitzurik? bada, hemen badago aukera hori profitatu eta ondo ordaintzeko prest dagoen emakumea; baita zerbitzu horren beharrik gabe etxeko gasari irteten uzten dion amona ere. badago emakume bortxatu bat; baita senarra eta etxea utzi eta alde egiten duten emazteak ere... ia ipuin guztietan emakumea da ezinbesteko protagonista.

zinema

## zinema euskaraz

gauekoak&orhum zine kluba  
gauekoak.com

**martxoak 7:** obsesio baten irudia  
**martxoak 14:** bechham izan nahi nuke

20:00etan, luis de ajuria aretoan  
(sarrera irekia eserlekuak bete arte)



literatura dosi txikitan

## Liburutegiak ala zoologikoak?

t. mikel ayerbe



Txikitan oso gustukoak nituen marrazki bizidunak (oraindik ere bai). Orduak eman nitzakeen telebistaren aurrean, larunbat goizetan bereziki. Irakurtzea ere asko gustatzen zitzaidan, baina ez hainbeste etxean nituen liburuak. Horregatik, amari erosketetara laguntzen nionean beti eskatzen nion liburu berri bat erosteko. Amaren erantzuna beti berdina izaten zen: "Liburuak erosi? Liburutegiak izanda?!". Esku hutsik itzultzen nintzen etxera, eta ezinbestean, liburu berririk irakurri nahi banuen, liburutegira joan behar. Orduan ez nuen ulertzen gure amaren jokaera. Orain, ordea, badakit nondik datorkidan liburutegietara joateko ohitura. Eta eskertzekoa da.

Egun, zerbaitentzat liburutegiak zoologikoko kaiolak direlako. Badaezpada, jendea ez da liburutegietara gehiegi hurbiltzen, zer gerta ere... Lagunek sarritan galdetzen didate ea zer egin behar den liburutegietako bezero egiteko: zenbat argazki, zenbat fotokopia behar diren. Baina hor gelditzen da kontua...


Horregatik iruditzen zait interesgarria urtarila eta martxoa bitartean Gasteizko udal liburutegietan antolatzen den 'Liburutegi Bizidunak' egitasmoa. Helburu nagusia, jendea (beldurrik gabe) liburutegietara hurbilaraztea delako. Aurten, gainera, iaz baino %50 ekin-tza gehiago izango dira eta adin guztietako jendea-ri zuzendutako ekin-tzak antolatu dira.

Horregatik iruditzen zait garrantzitsua urtero Gasteizko Gaztetxe-ko Liburutegiak apiril aldean antolatzen duen 'Liburutegi astea': hainbat ikus-kizunen bidez, literatura, musika eta hitzaldiak tartekatzen dituztelako.

Eta besteak beste, antolatzen diren ekimen hauexegatik iruditzen zaizkit liburutegiak zoologikoko kaiolak. Urtean behin, gutxienez, jendeak bisita ditzan antolatzen direlako. Ondoren norberak bere ohiturak har ditzan. Eta ez da gutxi baina... ■

## **EUSKAL SAL TSA 2008 Gasteiz. Apirilak 4-6**

Gasteiz saltsa topaguneko bigarren edizioaren lekuko izango da laster. Izan ere, 'Euskal Saltsa 2008' apirilaren 4, 5 eta 6an zehar izango baita, 3 egunetan barrena erritmo eta soinu latindarrek "Siberia-Gasteiz" berotuko dutelarik. Saltsa erakusketak, tailerrak eta festak izango dira beraz, protagonista nagusiak apirileko lehen asteburuan. Hona hemen Maya Vesa eta Rafa Vega, dantzari eta antolatzaileek kontatu digutena





maya vesa eta rafael vega, saltsa-dantzari eta antolatzaileak

#### **t. ane pedruzo**

#### **a. edorta sanz**

'Euskal Saltsa', 'Saltsaren lagunak' elkartearekin batera jaio zen iaz. Elkartea jada desgertua den Gasteizko Salsumba pub-ean doinu karibearrez goatzeko biltzen ziren hainbat lagunek osatzen dute eta dantza latinoak sustatzea dute helburu.

Esan beharra dago, horrelako ekimenak beste hiri batzuetan dagoeneko hedatuak zeuden arren, 'Euskalsaltsa 2007' Euskadiko saltsa topaketan aitzindaria dela.

### **Saltseroak**

"Sortzen den giroa ezin hobea da, ekintza-  
ren ondorengo afariak eta farrak ez dira falta,  
ez dago liskarrik, adeitasuna da nagusi, ari-  
keta fisiko osasuntsua da... ez dut beste ezertan  
horrelako esperientziarik bizi, nire bizitzaren

laurdena saltsari dagokio". Honela mintza-  
tzen da 'Saltsaren lagunak' elkarteko kide den  
eta 15 urtez saltsa dantzatzaren daraman  
Maya Vesa gasteiztarra. Konbentzitzeko  
moduko argudioak dira dudarik gabe eta bali-  
teke Gasteizen nabarmenki areagotuz doazen  
saltsazaleen arrazoiak oso antzekoak izatea.  
Esan beharra dago, nortasun exotikodun erri-  
mo afro-karibearren uztartze honek pixkana-  
ka erein duen arrakasta begi-bistakoa dela,  
izan ere, gure hirian gero eta ugariagoak dira  
saltsa tabernak.

Jatorriz Malagakoa baina aspaldidanik  
Gasteizen bizi den Rafa Vegaren kasuan,  
Maya izan zen saltseatzera animatu zuena.  
Gaur egun saltsa irakasle dabil Beato kaleko  
Café Havana-n, bere zaletasuna lantegiko  
lanarekin tartekatuz. "Saltsaren junkie bat  
bihurtu naiz", aitortzen du 53 urteko  
'Saltsaren lagunak' elkarteko presidentea.

Rafaren esanetan, saltsarako ez dago adinik  
eta hasieran emakumeak dantza honetako  
jarraitzaileak sutsuenak baziren ere, azkenal-  
dian gizonak ere saltsan trebatzen hasiak  
dira. "Gehiago ligatzen dela ohartu omen  
dira", dio.

Bikote honek, ordea, ez du ligatzeko asmo-  
rik saltsan aritzen direnean, biek aditzera  
eman dutenez, elkarrekin bikoterik "apropo-  
sena" osatzen baitute.

### **Euskal Saltsan, zer?**

'Euskal Saltsa 2008' topagunea hiru ekintza-  
ren inguruan dago antolatuta. Izan ere, par-  
taide bakoitzak aukeratzen duen paketearen  
arabera, festetara, erakustaldietara edota taile-  
rretara joateko aukera izango du, baita guztie-  
tara ere.

Lantegiak eta erakustaldiak saltsaren mun-

## egitaraua

## apirilaren 4a, ostirala

23:00-04:30: saltsa festa gasteiz  
barceló hotelean

23:30: saltsa erakustaldiaren hasiera

## apirilaren 5a, larunbata

11:00-14:00 / 17:00-20:00: tailerrak  
san andres polikiroldegian

23:00-04:30: saltsa festa gasteiz  
barceló hotelean

23:30: saltsa erakustaldiaren hasiera

## apirilaren 6a, igandea

11:00-14:00: tailerrak san andres  
polikiroldegian

15:00-18:00: bazkari kubatarra natxo  
jatetxean

20:00-24:00: salsoteka eta amaierako  
festa café havanan

## salneurriak

[salmenta hoteleko leihatilan]

-pakete osoa: 65 euro

-larunbateko paketea (igandeko  
tailerra barne): 50 euro

-2 festak+erakustaldiak: 40 euro

-festa+erakustaldi bakarra: (leihatilan)  
(aparte > bazkari kubatarra: 15 euro)

info+: café havana

[www.euskalsalsa.com](http://www.euskalsalsa.com)

duko hainbat profesionalen esku egongo dira. Horrela, ekimenean jatorri oso ezberdineko hamar bat saltsa talde arituko dira, Salsa y punto venezuelarrak, Tango mio kolonbiar eta madrildarrak ala Merecumbe iruindarrak, besteak beste.

Gonbidatu guztiak aski ezagunak dira saltsazaleen artean, baina Maya eta Rafaren aburuz, Fadi eta Bersy bikotearen saioa berezia izango da oso. Fadi txikitatik Gasteizen bizi izan den eta bere burua gasteiztartzat daukan jordaniarra da. Maya eta Rafarekin batera ikasi zuen saltsa dantzatzeko eta gaur egun espezialitate honetan onenatariko bat da. "Berak pertsonalki deitu gintuen topagunean lekutxo bat egin genieziaion, bere etxean berriz dantzatzeko irrikitan dago", azaltzen du Mayak.

Lantegietan hainbat saltsa eredu desberdin landuko dira, 'lenroko saltsa', 'saltsa kubatarra', 'hip-hop saltsa', 'cha-cha-cha', 'bachata'... esaterako. Era honetan, tailer bakoitzean eta ordubetean zehar, ertain eta goi mailako dantzariak euren teknikak hobetu eta pauso berria ikasteko parada izango dute.

Erakustaldiei dagokienez, festaren baitan ospatuko dira, eta Maya eta Rafaren arabera, "bertan eskainiko den kalitatea mundiala izango da". Ikuskizunen handitasunaren ondorioz, jendea gau osoan gorputza astintzera animatuko dela erraz iragarri daiteke. Dena den, adi egotea komeni da festetarako sarrerak mugatuak baitira, gehienez 250 lagunentzako tokia baitago.

## Saltsaren zaporeak

Pentsa daitekeenaren kontra, honelako ekintzetan normalean alkohola alde batera gelditzen da. Mojitoak eta Margaritak denek esku egon arren, "gure inguruko saltseroek festetan ura edatea da ohikoena", argitu du Mayak. Izan ere, saltsa jarduera fisiko neke-tsua da eta hidratatua egotea oso garrantzitsua da, batez ere asmoa orduak eta orduak dantzatzeko baldin bada.

Janariari dagokionez, 2008ko topaketa bazkari kubatar batekin borobilduko da. Menua oraindik zehazturik ez badago ere, Maya hainbat iradokizun egitera ausartu da

"Baliteke marigorringoak egotea, platano frijitua alegia, eta arroz frijoleekin ere aukera ona litzateke". Natxo jatetxeko sukaldari kubatarrek izango du ordeazken hitza.

## Badator euskal saltsa...

"Saltsan ez dut sekula une latzik bizi izan, baina bai milaka momentu zoragarri". Iraganari begira eta hitz hauen ostean gogorarazi dio Mayak Rafari iazko topaketan "Aguanile" bikote profesionala osatzen duten Roi eta Taliarekin igarotakoak. Garai hartan saltsa dantzariak ezkondu berriak zirenez, kongresuaren amaieran Rafak eta Mayak trufa saski bat oparitu zieten. Roi eta Taliak eskerturik eurekin dantzatzera atera zituzten, dantzari profesional guztiekin batera. Ahal izan zutenean "eszenatokitik ziztu bizian jaitsi" ziren 'Saltsaren lagunak' elkarteko kideak.

Oraingoa bigarren edizioaren atarian gaudenean eta iazko ospakizunaren arrakastaren arrastoak bizirik dirautelarik, Rafa eta Maya buru-belarri ari dira lanean xehetasunak kontu handiz zaindiz.

Azken orduko ezustekorik ez bada dena prest dago Gasteizen saltsaren onenaz gozatzeko. Maaaaaambo!!





**ARANBIZKARRA**  
**ZURE**  
**AUTOESKOLA!**  
 Valladolid kalea, 16  
 Tfnoa. 945 28 28 39  
 01002 GASTEIZ

# Euskara, gure lurralde libre bakarra

araba@aralar.net • Kanpokale berria 4, behea • 945252631



**PASRAI**  
 TABERNA  
 Egurditan, astelchimetik ostiralea  
**JANTOKI**  
**BEGETARIANO**  
 SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4  
 01001 - GASTEIZ  
 Tel.: 945 27 68 33

## ZURE HARATEGIAK





**XABIER AIZPEOLEA**  
 harategia  
 Florida Azoka 2 eta 3  
 Tl. 945 13 24 48  
 Abastos Azoka 2 eta 3  
 Tl. 945 26 78 97

**Jose Luis GARMENDIA**  
 Harategia-urdaitegia  
 Andaluzia kalea 13  
 Tl. 945 28 79 42  
 GASTEIZ

*gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak*

Obren egite eta zuzentzea

**ALTUNA** Estudioa  
 "Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak"  
 Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa  
 Florida kalea, 9 behea - 01005 GASTEIZ  
 Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobil: 639 81 51 30

**ARTEPAN**  
 aniztasuna, kalitatea eta zerbitzua  
 norbanako eta enpresen eskura  
 Jesus guridi, 2 • tl. 945 27 88 88  
 boulevard m.g. • tl. 945 06 88 88  
 vitoria-gasteiz - www.artepan.com

**UZTINTZA**  
**KERAMIKA TAILERRA**  
**KERAMIKA HERRIKOIA**  
**ETA BERRIA**  
 HEDEGILE kalea (Korreria), 120  
 Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ



## ERROTA HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz kalea, 1 Tl. 945 213 390 - Faxe: 945 213 390  
 01012 GASTEIZ e-posta: errotadental@euskalnet.net

**bar restaurante albéniz**  
 Errege atea, 9 - GASTEIZ  
 Tl: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

**MARRAZKIAK · KOADROAK**  
**MOLDURAK LAMINAK**  
**zurbeltz**  
 Madalena kalea, 2 • Tl: 945 13 27 20

*Confecciones*  
**Pinedo**  
*Jantziak*  
 San Antonio, 11 • Tl. 945 23 39 90  
 H. Fournier, 15 • Tl. 945 15 53 39

**HEGOALDE**  
 Euskaltegia  
 Matrikula zaitetz !!  
 Jose Lejarreta 9 behea  
 Tfnoa 945 28 41 96  
 01003 GASTEIZ

**Udaberria**  
 euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tl: 945 24 49 65  
 Abendaño kalea 48 - Tl: 945 22 34 33

## Euskadik behar zaitu





## “BIZIKLETEROA”, GASTEIZEN UGALDU DEN ESPEZIEA

Hainbat informazio-iturri arakatu ditugu baina ezin jakin noiz agertu zen espezie hau Gasteizko kaleetan. Hala ere, azkeneko urte hauetan hiriburuko edozein tokitan aurki daitezke ugaztun berezi hauek. Itxura fisiko berezirik ez dute, baina ez dituzte oinak erabiltzen alde batetik bestera mugitzeko. Horietako batzuek elkarre bat sortu zuten bere egunean: ‘Gasteizko Bizikleteroak’. Geu-k bi “bizikleterekin” egoteko aukera izan du.



ruben ziordia, bizikleteroak

**t. naroa cuesta**

**a. edorta sanz**

## Gero eta gehiago

Bederatzi urte joan dira Gasteizko Bizikiletoak elkarte sortu zenetik. Hasieran ezarritako helburuak eta gaur egungoak ez dira gehiegi aldatu: bizikletaren erabilpena sustatzea hiri garraiabide gisa eta bizikleta erabiltzaileen eskaerak biltzea, haien interesen defentsan aritu ahal izateko. Interesak beraz, berberak; egoerak aldiz, ez dauka zer ikusirik. Bidean emandako aurrerapausoak hirian islatu egin dira dagoeneko.

Guztira ehun bat kidek osatzen dute Bizikiletoak elkarte. Eginkizunen arabera taldeak sortu dituzte funtzionamendua errazteko asmoz. Azpiegituren inguruko taldeak, esate baterako, hiriko bidegorri sarea aztertu eta txostenak osatzen ditu. Bildutako informazio hori aztertu ondoren, erakundeei luzatzen dizkiete bizikletaren erabilera sustatzeko eta segurtasuna bermatzeko proposamenak. Ekarpen horiek guztiak [www.bizikiletoak.org](http://www.bizikiletoak.org) webgunera biltzen dituzte.

**“BIZITZA KALITATEA  
NABARMEN HANDI-  
TZEN DU BIZIKLETAK”**

## Arrazoi anitz

“Erosoa, atsegina, merkea... ezinezkoa zait hura gabe bizitzea. Nire appendizea da; nire droga”, hauxe da Ruben Ziordiarren erantzuna bizikletaren definizio bat eskatu ostean. Bizikiletoak elkarteko presidente ohia da Ruben eta egun idazkari lanak egiten ditu. Amsterdam-en ikasten egon ostean Gasteizera itzuli eta bizikleta aukeratu zuen garraiabide Ziordiak. Orduan, webgune bat sortu zuen bizikletaren erabileraren inguruan, Gasteizko Bizikiletoak elkartearen erroa, alegia.

Elkarteko altxorzaina da Diana Paniagua. Bilbo, Castro eta Madril izan ditu bizileku. Urteetan erabili zuen bizikleta, Castron bizi zenean, alegia. Hiri handietan, berriz, ezinezkoa ikusten zuen. Gasteiz ezagutu eta bizikletaz mugitzeko hiririk egokiena dela uste du Paniaguak.

“Gasteizko argazkia erabat aldatu da hamar urtetik hona. Gaur bizikletak lekua hartu du hirian”, diosku Ruben Ziordiak. Ehun mila bizikleta baino gehiago omen daude Gasteizen, baina oraindik asko dira egunero erabiltzera ausartzen ez direnak. Bestetik, “etorkin eta kanpotik etorritako ikasle askok garraio mota hau erabiltzen dute maiz”, gaineratzen du Diana Paniaguak. Arrazoi ugari egon daitezke hiritik bizikletaz mugitzeko. Bada, bakoitzak berea aukera dezan!

## Bizikletaren Behatokia

Bizikiletoak elkarteak sortutako tresna da Bizikletaren Behatokia, Gasteizen bizikletaren erabilera hobetzeko eta errazteko xedez. Elkartera heltzen diren kexak eta iradokizunak kudeatzeaz gain, Hiriko Mugikortasun Iraunkorrerako Plana betearazi dadila kontrolatzen du eta bizikletaren erabilera sustatzeko proposamenak plazaratzen ditu. Berrogeita hamar eskaera baino gehiago bildu ditu Behatokiak sortu zenetik 2007ko irailean, hain zuzen ere. Horietako batzuk, Udalak kudea ditzan, erregistratu dituzte. Jasotako ekarpen gehienek beste hirietan garraiabide honen inguruan egindako proposamenak ekartzen dituzte gogora. Era berean, bidegorrien egoera salatu eta berriak eraikitzerakoan egiten diren akatsen inguruko kexa asko jaso dira. Ruben Ziordiarren aburuz, “kotxeentzako hiria planifikatzen jarraitzen dute. Kaleetan eraberritze lanak egiten direnean bizikleten-aparkalekuak kendu behar badira, gero ez dira beste inon berriro jarritzen”.



## Masa kritikoa

Aldarrikapen ekintza honen jatorria Txina da. Bertan, txirrindulariak bidegurutzearen ertz batean bildu eta talde handia osatzen zutenean errepidea gurutzatzen zuten. Segurtasun neurritzat erabiltzen zuten txinatarrek, baina gaur munduko ehunka hiritan hilean behin gauzatzen den aldarrikapen ekintza bihurtu da. Ziklista talde bat hiriko errepideetan barrena ibiliz trafikoaren egoeraren inguruko protesta aurrera eramatea, alegia.

1992. urtean Ted White zuzendariak 'Return of the Scorchers' dokumentalean fenomenoaren mendebaldean ezagutarazi zuen. San Frantzisko (Kalifornia, 1992) izan zen aitzindari baina munduan zehar zabaldu den protesta dugu gaur 'Masa kritikoa'. Gasteizen

hileko azken ostiralean arratsaldeko zortzietan Arka plazatik irteten da ziklista taldea esparru propioa bereganatzeko asmoz.

## Lapurreten arazoa

Zeinek ez du ezagutzen bizikleta lapurtu diotenik? Bizikleta kalean uzteak baditu bere arriskuak, hala ere, lapurretak saihesteko bideak egon badaude. Hauek dira Gasteizko Bizikleteroek proposatzen dituztenak: giltzarrapo egokia erabiltzea (U formakoak seguruak dira; baita garestienak ere) eta begi-bistako leku argitsuak aukeratzea bizikleta aparkatzeko. "Arazo honek jendea kezkatu egiten du eta bizikleta etxean uzteko arrazoia da askorentzat. Egoera honen aurrean bizikleta erabiltzaileek euren eskubideak defendatu behar dituzte. Udalak, berriz, eskubide horiek bermatzeko neurriak jarri beharko lituzke. Bizikleten aparkalekuak badira Gasteizen, baina ez dago bizikletak gordetzeko leku aproposik", salatzen du Ziordiak.

**"KOTXEENTZAKO  
HIRIA PLANIFIKATZEN  
JARRAITZEN DUTE"**

**"GASTEIZKO ARGAZKIA  
ERABAT ALDATU DA  
HAMAR URTETIK HONA.  
GAUR BIZIKLETAK  
LEKUA HARTU DU  
HIRIAN"**

## Aniztasuna

Gorriak, urdinak, marradunak... zaharrak, modernoak... hibridoak, tolesgarriak... mota eta kolore guztietako bizikletak aurki daitezke Gasteizko kaleetan. Halarik ere, laranja koloreko bizikleta ugari daude hiriko hainbat leku zehatzetan: Gizarte Etxe gehiengotik, Turismo Bulegoan, Mendizorrotzan... Udalak eskaintzen duen mailegu zerbitzuak dituen alokatze guneetan, hain zuzen ere. Hemendik aurrera urte osoan zehar izango da bizikleta laranja horietako bat alokatzeko aukera. "Ez dakigu kotxea etxean uzteko benetako alternatiba bihurtu den alokairu zerbitzua. Agian, oinez mugitzen zirenak bizikleta erabiltzera animatu dira", diosku Ziordiak. "Ezinbestekoa da jakitea zenbatek uzten duten kotxea etxean bizikleta hartzeko", gaineratu du Paniaguak. Horrela jakinarazi diote Udalari.

## "Little Amsterdam"

Gasteizen bizikleta erabiltzearena ez da fenomeno berria, baina azken bolada honetan areagotu egin dela diote batzuek. Arabako hiri-buruak duen tamainari eta orografiari esker oso hiri egokia da bizikletaz ibiltzeko. Kirola egiteko erabiltzen dute askok, lanera joateko beste batzuek eta badago bizikleta barik bizitza ulertzen ez duenik ere. "Bizitza kalitatea nabarmen handitzen du bizikletak", baieztatu du Diana Paniaguak. Halaber, ezin ahantzi daitezke osasunarentzat dituen onurak. Hiritarren eskuetan dago Gasteiz "Little Amsterdam" moduko bat bihurtzea. Horrenbestez, joan zaitez ganbararaino, beldurra eta alferkeria bertan utzi eta har ezazu bizikleta■

[www.bizikleteroak.org](http://www.bizikleteroak.org)



## Bi zutarri edo menhir berri Toloño inguruan

**t. kike fdz. de pinedo**

Zutarri, iruinari edo menhir deitu ohi ditugu. Ez dakigu zertarako altxatu zituzten. Hipotesiak ez dira falta: antzinako mugarriak, bideak seinaleztatzeko harriak, eguzkia gurtzekoak, emankortasun sinboloak, hilobi-monumentuak... Arabako Arkeologia Institutuak dagoeneko 24 zenbatu ditu gure lurraldean. Azken urteetan ez dira gutxi aurkitu direnak, gehienak lurrian botata eta erditik hautsita. Egunkarien bidez jakin dugu hauetariko bi, Gorbeia Arlo izenekoa eta Valderejoko El Gustal, konpondu, zutitu, eta jatorrizko ikusgarritasuna berreskuratu dutela. Baina hauekin batera, badira beste bi zutik eta tinko aurkitu berri direnak Toloño inguruan. Ipar isurialdean bata, Riparasa; eta



Riparasa zutarria, atzean Toloño

hegoaldekoan bestea, Peña Lacha (Latz). Hegoaldean aurkitu diren aurrenekoak dira hauexek. Biek, hurbil egoteaz gain (2,2 kilometro zuzen joanda), badute antzekotasunik: tamaina handikoak dira, luzeak bezain zabalak, eta tankera irregularrekoak.

### Peña Latza zutarria

Rivas (Ripa) eta Peciña inguruan dago. Ez da Araba, baina zaila da bereiztea Arabako Errioxatik. XV. mendera arte Toloño mendikatetik Ebro bitarteko lurralde guztiak Nafarroako Sonsierra eskualdea osatzen baitzuten. Esan dezagun, bide batez, inguru hau bereziki aberatsa dela ondare arkeologikoari dagokionez: megalitoak, historiaurreko eta Erdi Aroko herriak, harrian egindako hilobiak, harritzko dolareak... eta orain iruinari bat. Antza, Piedra de Rayo aldizkari Carlos Muntionek harrian erreparatuta Arabako Arkeologia Institutuari jakinarazi, eta hemengo kide batzuek bertaratu eta aztertu ondoren, menhirra zela ziurtatu ahal izan zuten. Azterketa honetan zenbait ziri eta harri aurkitu zituzten bere oinarrian, monolitoa tinkatzeko jarriak. Ingurumarian ere silex harriak eta zeramika puskak atzeman zituzten, bere antzinasunaren seinale. Zaila da, halere, kronologia zehaztea, baina Armando Llanos arkeologoarentzat Kripandik ondo ko Peciña bitartean dauden 7 trikuharri ikusgarrien



**EGUR2**

- Zurezko teilatuak
- Berrikuntzak

Padurea kalea, 12, 16 Pab.  
Goian Industrialdea  
TI/Fxa: 945 465 921  
TI. 627 417 747  
Info@egur.es  
www.egur.es  
01171 Legutiano (Araba)



**eusko  
alkartasuna**

www.euskoalkartasuna.org  
c/ san prudencio 3  
gasteiz-erdialdea



**Gazte  
Abertzaleak**

www.gazteabertzaleak.org  
c/ vicente manterola z/g  
zaramaga

**Euskeraz Araban BAI**

garai berekoa izan daiteke. Itxura ez du nola-nahikoa. Bere euskal izenak ondo deskribatzen duenez *latza* da harria, hau da, handia, ikaragarria edo zakarra. Toponimo bera dugu Bastidako Toloño mendikatearen mendi batean, Mendilatz. 14 tonakoa omen da, eta aurrez aurre begiratuta badu elefante baten antzik.

#### Riparasa zutarria

A. Llanosek eta F. Galileak topatu berri dute Toloño ipar isurialdean. Izen bereko paraje-an. Kareharritzkoa, zabala eta irregularra da. Aurrekoan bezala oinarriko hainbat zirrik eta harrik zutik eusten laguntzen diote. 500 bat metrora dagoen Zazpiturri paraje-an (badira hainbat iturri) silex harri eta zeramika ugari topatu dira■



Peña Latza zutarria  
(Rivas-Peciña)

#### >NOLA IRITSI

-Riparasa izenekora iristeko, Rivas mendatera (lehen Urizarri mendatea deitua, izen bereko herria Urizaharrera doan bide ondoan baitzegoen) kotxez joan gaitezke. Handik gertu pista bat hartu, ordubete inguru ibili eta gero Riparasa paraje-an eta Ortada zelaiak hasten direnean bide ondoan eskuinetara ikusiko dugu. Nahi izanez gero, zelai erdian dagoen Zazpiturri iturrira jo dezakegu eta handik goraka doan bidean barna Toloño mendia zapaldu.

-Peña Latza-koak historiaz, euskal aztarnez eta ustekabez betetako ibilbidea dastatzeko aukera emango digu. Lehenengo Rivas de Teresora -Erdi Aroan Ripa deitua- iritsiko gara. Han Peciñara doan bidea hartu eta hogei bat minutu ibili eta gero Gobateko bi eremita-“goba” edo koba bisita ditzakegu bide ondoko muinoan. Gizakien eskuak sumatuko ditugu kobetan, harrian egindako hilobietan eta dolarean. Ezkerraldera begiratuta, XVIII. mendean hustutako Orzales herriaren elizaren horma bakartiek harrituko gaituzte. Bidea jarraitu eta aurrerago eskuinetara doan bide batean sartu eta 100 metrora aurkituko dugu monolitoa. Gero bidera bueltatuta Peciña herria pasa eta Sta. Maria de la Piscinara joko dugu, han eliza, Erdi Aroko herri baten aztarnak, 53 hilobi, harritzko dolare bat eta La Coscoja trikuharria ikusi ahal izango ditugu. Abiatu, ez zarete aspertuko, ez horixe!

## Iturrieta Sagardotegia



AZKEN DENBORALDIA

ostegunetik  
igandera  
irekita

gainontzeko  
egunetan  
erreserbarekin

Bramalo. Arraga auzoa, z/g  
Tl.: 945 445 385



IZARRA TABERNA - JATETXEA  
BITORIANO - ZUIA (ARABA) • ☎ 945 430 073

**GEU**

publizitatea: [idogeu@ya.com](mailto:idogeu@ya.com)  
688 61 98 37 · 945 22 21 53



**m. iñigo sarasola**



### Gasteiz 1976-2008

**t. erlantz urtasun antzano. historialaria**

Gure historia hurbilaren nondik norakoak hobeki ezagutzeko, irakurle maitea, zinez gonbidatzen zaitut liburutegietako hemeroteken bisitatzerat. Dohainik baita, eta ezin aberatsagoa, paper zaharren irakurtzea. Honela zioen, kasu, bere lehen orrialdean, 1976ko martxoaren 4an, ortzegunarekin, karrikaturiko egunkari batek: "Gravísima situación en Vitoria. Dos muertos y más de treinta heridos en enfrentamientos con la fuerza pública. Un inspector de policía resultó gravemente herido al explotarle un cóctel "Molotov". La trágica jornada había comenzado con la convocatoria de una huelga general".

Hau da, egunkari bereko barne orrialdeetan, irakurtzen ahal diren lehen ohar ofizialaren lerro batzuk: "Se vieron obligados a efectuar disparos al aire. Algunos agentes acorralados por grupos tumultuarios se vieron obligados a defenderse. Se invita a los alaveses a que reanuden sus actividades habituales".

Eta, hauxe, artzapezpikuaren oharra: "Esperamos que todos entiendan que ante la complejidad de los hechos y problemas que se han ido planteando, este Obispado haya observado un prudente silencio, confiado en la cordura y espíritu de justicia de todos".

1976ko martxoaren 5a, ortziralarekin: "Hoy, funeral por los tres muertos en los incidentes de Vitoria. El ayuntamiento de la capital alavesa decreta hoy medio día de luto en la ciudad. La policía impidió circular por la calle a grupos superiores a cuatro personas. El ministro de Gobernación don Manuel Fraga, continúa en Bonn, donde ha manifestado su preocupación".

Egun berean, Araban argitaraturiko egunkari baten editoriala: "No puede tolerar la provincia ni Vitoria estas continuadas y progresivas alteraciones del orden ni la instauración de la huelga en los conflictos laborales, porque esta comporta solo más dolor y violencia".

1976ko martxoaren 6a, larunbatearekin, espainiar gobernuaren ohar ofiziala: "Agotadas todas las medidas disuasorias, las fuerzas del orden se vieron en la precisión de rechazar las agresiones para defenderse en ocasiones en que su situación se hizo crítica".

2008ko martxoa. Egutegiaren arabera, laster udaberría dator. Hala bedi! ■

# INDEPENDENTZIA OIHUKATU!



eusko  
alkartasuna  
**herriarenahotsa**



[euskoalkartasuna.org](http://euskoalkartasuna.org)

**geusex@emaize.com**


**Argitu nahi duzun sexualitateari buruzko zalantzarik ala jakin-minik al duzu?**

**Hilerik hile zure galderak erantzungo dizkizugu. Sexualitatearen inguruko arlo desberdinei buruz galde diezagukezu.**

**Anima zaitetz eta bidali hona zure galderak:**

**geusex@emaize.com.**

**Emaize Sexologia Zentroko profesionalek erantzungo dizute.**



**emaize sexologia zentroa**

**gizon eta emakumeentzako arreta**

**bueno monreal I-behea / 01001 gasteiz / 945265896 / www.emaize.com**

**Kaixo, 17 urteko neska naiz eta ez dakit lehenengo aldiz egiteko prest nagoen. Mutilarekin oso gustura nago, baina ez dut larrua jotzeko gogorik. Bera gogoz dabil eta ez dakit zer egin.**

Koitoa egiteko gogorik ez duzula diozu. Zure bikotearen desioa asetzeko egin dezakezu, baina zure desioa ez al da beharrezkoa biok gozatu ahal izateko?

Koitoari gehiegizko garrantzia ematen diogu eta gizarte presioak gure momentua iritsi dela pentsarazten digun arren, gure desioak eta nahiak esango digute noiz den une egokia. Plazera eta ongi-zatearen bila bazabiltzate, ez ahaztu joko guztiak gozagarriak direla.

Bion desio eta pentsamenduez hitz egin eta elkarrekin gustura sentitzen jarraitzeko, biok desiatzen dituzuen jokuei ekin.



**40 urteko emakumea naiz. Senarrarekin sexu-harremanak ditudanean gozatu egiten dugu, baina praktika berriak frogatzea gustatuko litzaidake. Beldurra ematen dit proposatzeak bera oso tradizionala delako.**

Guztien desio eta beharrak ezberdinak dira eta bikotekidearekin horietaz hitz egitea garrantzitsua da gure erotikaz elkarrekin gozatzeko. Gure sexualitatea bizitzan zehar aldatzen doan prozesua da eta berarekin gure desioak, beharrak eta jakinmina ere. Bestetik, tradizionala izateak, "normaltasunaren" barruan egoteko nahiarekin zerikusia izaten du maiz, beraz "arruntagotzat" hartuko dituen proposamenekin has zaitetzke.

Garrantzizkoa da argi uztea joku berrien nahiak ez duela zerikusirik aspertuta egotearekin, elkarrekin gozatzeko aukerak areagotzearekin baizik.



## errezeta

### ARROZESNE FLANA (6 ANOA)

- 1.000 arrozesne gramo
- 140 gramo gorringo (7) Laranja azala. Anis haziak. Bainilina).



diocesan- mendizorroztako  
ostalaritza eskola

#### Elaborazio prozesua

Arrozesnea pausatzen utzi eta hoztutakoan gorringoarekin nahastu. Aldez aurretik karamelizatu diren moldeetara isuri eta maribainutan labean sartu ( $170^{\circ} - \pm 50'$ ).

Burbuilen agerpena ekiditeko, ezinbestekoa da moldeen azpian paper bat jartzea, gainezka egiten duten maribainuaren urek irakin ez dezaten. Hala eta guztiz ere, irakiten hasi dela ikusten bada, labearen temperatura jaitsi daiteke.

Laranja lakainez eta mermeladaz dekoratu. Flan arrunta bezalaxe kontserbatzen da■




**Acércate a conocernos  
Ezagutu gaitzazu**



**ABIERTO EL PLAZO  
DE MATRICULACIÓN**

**MATRIKULAZIOA EPEA  
ZABALIK**

**AGANTZON GURASO ELKARTEA**  
Calle Harresien kalea  
09294, Argantzón  
945 37 31 85  
argantzón@ikastola.net



**GASTEIZTIK eta**

**RIBABELLOSATIK**

**10 minututara**

## AURREMATRIKULAZIOA 08-09

**FIN DEL PERIODO DE PREMATERICULACION**  
21 de marzo



|                          |                                                                                                                    |
|--------------------------|--------------------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>HIZKUNTZA EREDUA</b>  | euskara                                                                                                            |
| <b>TALDEKATZEA</b>       | talde txikiak * 8-15 haur                                                                                          |
| <b>JANTOKI ZERBITZUA</b> | 1-2 urte (ebetxik ekarritako janaria)<br>2-6 urte (catering - 2.80 €/eguneko)                                      |
| <b>INGELES</b>           | eleanitz proiektua (4 urtetik aurrera)                                                                             |
| <b>MUSIKA HEZKUNTZA</b>  | 3 urtetik aurrera                                                                                                  |
| <b>IKASMATERIALAK</b>    | euskal herriko ikastolen konfederazioa                                                                             |
| <b>ADINA</b>             | 1-6 urte                                                                                                           |
| <b>ORDUTEGIA</b>         | 8:30tik 17:00ra                                                                                                    |
| <b>PREZIOAK</b>          | 0-3 urte * 140-170 €/hilean (orduen arabera)<br>3 urte * 70 €/hilean<br>4-5 urte * 80 €/hilean (Ingelesa dela eta) |



|                           |                                                                                                         |
|---------------------------|---------------------------------------------------------------------------------------------------------|
| <b>MODELO LINGÜÍSTICO</b> | euskara (modelo D)                                                                                      |
| <b>AGRUPACION</b>         | grupos reducidos * 8-15 niñ@s                                                                           |
| <b>SERVICIO COMEDOR</b>   | 1-2 años (comida traída desde casa)<br>2-6 años (catering *2.80 €/día)                                  |
| <b>INGLES</b>             | proyecto eleanitz (a partir de 4 años)                                                                  |
| <b>EDUCACION MUSICAL</b>  | a partir de 3 años                                                                                      |
| <b>MATERIAL EDUCATIVO</b> | confederación de ikastolas de euskal herria                                                             |
| <b>EDAD</b>               | 1-6 años                                                                                                |
| <b>HORARIO</b>            | de 8:30 a 17:00                                                                                         |
| <b>PRECIOS</b>            | 0-3 años * 140-170 €/mes (según horario)<br>3 años * 70 €/mes<br>4-5 años * 80 €/mes (debido al Inglés) |

**AURREMATRIKULARAKO EPEAREN AMAIERA**  
martxoak 21

**PREMATRICULACIÓN 08-09**